

Jakitea

IRAKASLE

Izatea

PROFILA

Planifikatzea

*Irakaskuntza-ikaskuntza
prozesua kudeatzea*

egitea

*Hezkuntza-komunitatean
elkarreraginean aritzea eta
parte hartzea*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Vitoria-Gasteiz, 2021

Dokumentuaren egileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko
Hezkuntza Ikuskaritzak
Autonomia Erkidegokoak
egina

2021eko uztaileko edizioa

1. SARRERA	7
1.1. Irakasle-profilaren kontzepturako hurbilpena	7
1.2. Dokumentuaren helburua	8
1.3. Dokumentuaren egitura	9
2. IRAKASLE-PROFILA DEFINITZEN DUTEN EREMU ETA DIMENTSIOAK	11
2.1. JAKITE eremua	13
2.2. EGITE eremua	15
2.2.1. <i>Dimentsioa: planifikatzea</i>	15
2.2.2. <i>Dimentsioa: irakaskuntza-ikaskuntza prozesua kudeatzea</i>	17
2.2.3. <i>Dimentsioa: hezkuntza-komunitatean elkarreraginean aritzea / parte hartzea</i>	21
2.3. IZATE eremua	24
3. IRAKASLE-PROFILAREN EREMU ETA DIMENTSIOAK. KONPETENTZIAK ETA GARAPEN-MAILAK	29
3.1. Lau garapen-mailen deskribapen orokorra	29
3.2. Lau garapen-mailak errubriken bidez deskribatzea	31
<i>JAKITEA</i>	33
<i>EGITEA– planifikatzea</i>	37
<i>EGITEA – irakaskuntza-ikaskuntza prozesua kudeatzea</i>	41
<i>EGITEA – hezkuntza-komunitatean elkarreraginean aritzea eta parte hartzea</i>	55
<i>IZATEA – irakasle izatea</i>	61
4. IRAKASLEAK EBALUATZEKO EREDUEN DISEINUARI BURUZKO ZENBAIT KONTU	67
5. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA	69
6. AZKEN OHARRAK	71

Sarrera

Gure gizartean —aski ezaguna dugu egoera— ziztu bizian gertatzen ari dira aldaketak; hala da gaur egun, eta halaxe izango da etorkizunean ere, eta eskolak erantzukizun handi du aldaketa horiei erantzuteko eta sortuko dituzten aukera berriak aprobetxatzeko.

Nazioarteko zenbait erakundek, UNESCOk eta ELGak adibidez, aitortzen dute gero eta konplexuagoak direla kalitatezko hezkuntza inklusibo eta ekitatiboa bermatzeko eta guztiontzako etengabeko ikaskuntza-aukerak sortzeko eskolei eta irakasleei zuzendutako exijentziak. Egungo gizarteak eskakizun argiak ditu ikastetxeei begira: hizkuntza eta jatorri ezberdineko ikasleekin lan egin dadin; kultura-aniztasunaren, genero-berdintasunaren eta ikuspegi inklusiboaren garrantzia azpimarratu dadin; tolerantzia eta kohesio soziala bultzatu dadin; eraginkortasunez erantzun dakien zaurgarritasun-egoera larriengan daudenen edo zailtasun gehien dituztenen egoerei, eta teknologia berriak erabil ditzaten eta eguneratuta egon daitezen etengabe bilakatzen ari diren ezagutza-eremuetan eta ikasleei irakasteko eta ebaluazioa egiteko modu berrietan. Ildo horretan, ezinbestekoa da irakaslea gai izatea ikasleak bizitza-proiektu arrakastatsuak lortzeko eta gizartearen parte izateko moduan prestatzeko; izan ere, gizarte horrek hainbat baliabide eskatuko dizkie, hala nola taldean lan egiteko gaitasuna, ikasteko autonomia, bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko gaitasuna eta motibazioa eta balio etikoetan oinarritutako jarrera kritiko, parte-hartzaile eta kooperatiboa.

1.1. Irakasle-profilaren kontzepturako hurbilpena

Irakasle-profilera hurbiltzeko, lehenik eta behin erabaki beharra dago zein den gizarte batek eskatzen duen hezkuntza-ereduarekin modu eraginkorrean bat egiten duen irakaskuntza-eredua. Gero, eredu hori definitzen duten dimentsioak deskribatu eta zehaztu behar dira.

Abiapuntu gisa, esan dezakegu irakaslea profesionalki irakaskuntzara dedikatzen den pertsona dela, irakaskuntza hezkuntza-praktika integrala dela ulertuta. Beste era batera esanda, ikaskuntza bultzatzen du, eta ikasleek bizitzan beharko dituzten konpetentziak garatzeko ezagutzak, prozesuak, balioak eta ohiturak eraikitzeko bideak bultzatzen ditu ikasleekin batera jardunez. Gainera, bultzatu beharrekoak dira, orobat, konpetentzia sortaileak, kritikoak, intelektualak, analitikoak eta deduktiboak, etikoak, tolerantziak eta berdinzaleak, generoari, jatorriari, eta abarri dagokienez, norbanakoaren —eta, zentzu orokorrean hartuta, gizartearen— arrakasta lortzen laguntzeko.

Horretarako, irakaskuntza ezin da ulertu ezagutzak, prozedurak eta jarrerak transmititzeko bide soil gisa. Hezteak alderdi sinbolikoak, komunikatiboak, sozialak eta etikoak dituzten elkarreragin oso konplexuak dakartza berarekin. Irakaskuntzako profesionalak gai izan behar du ikasleei

ikasten, pentsatzen, sentitzen, jarduten eta norbanako gisa eta balioak dituen gizarte bateko kide gisa garatzen laguntzeko.

Egungo gizartean irakasle izateak erronka handiak ditu alderdi akademikoan, profesionalean, sozialean, kulturean eta pertsonalean. Eta erronka horiei guztiei modu kritiko, arduratsu, etiko eta eraginkorrean erantzun behar diete hezkuntzako profesionalak —barne hartuta irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzaz arduratzen direnak— eta hezkuntza-politiken arduradunek.

Irakasle-profila definitzeko, pertsona batek irakasle-funtzio eta -atazak behar bezala gauzatzeko behar dituen ezaugarrien, gaitasunen eta kompetentzien multzoa deskribatu behar da. Ezaugarri pertsonalak, jokabideak eta jarrerak barne hartzen ditu horrek, ikasle guztien arrakastarekin, aniztasuna balioestearekin eta norbanakoaren berezitasunak aitorztearekin lotuta betiere. Halaber, barne hartzen du bere jardun profesionalean egunero-egunero sortzen diren zalantzei erantzuteko estrategia eta ezagutza berriak etengabe barneratzeko gaitasuna.

Irakasle-profilaren kontzeptua etengabe eraiki behar da, eta unean-unean erantzun behar die bai ikasle bakoitzaren premiei, bai eskola-ingurune bakoitzaren ezaugarri bereizgarriari eta gizartearen eskariei.

1.2. Dokumentuaren helburua

Irakasle-funtzioaren eredu bat sustatzeko diseinatu da dokumentu hau, eredu hori lagungarri izan dadin irakasleen kompetentzia profesionalak eta, ondorioz, gure erkidegoko ikasleen oinarritzko kompetentziak eta heziketa-emaitzak hobetzeko.

Hemen deskribatutako irakasle-profilak barnean hartu nahi ditu irakasleek indarreko araudiaren arabera dituzten funtzioak eraginkortasunez gauzatzeko direla bermatzeko beharrezkoak diren kompetentziak.

Dokumentu hau irakaskuntza-arloko hainbat xedetarako erreferente izan daiteke (prestakuntza, ebaluazioa, autoebaluazioa...). Horrela, xedearen arabera hautatuko dira bertan deskribatzen diren atalak edo kompetentzien garapen-mailak.

Adibidez, irakasleen hautaketa-prozesu tradizioaletan, pisu handiena JAKITE eremuaren edukiak dauka, eta eremu horren barruan bi nahikotasun maila daude: 1. maila eta 2. maila. Alabaina, dokumentu hau prestakuntza-prozesuetarako (izan hasierakoak edo etengabekoak), autoebaluazioa egiteko edo gelako praktika errealak egiten dituzten irakasleen kompetentzia balioztatzeko erabili nahi baldin bada, bertan jasotako eremu eta maila guztiak har daitezke aintzat.

Dokumentu hau irakasleen zereginen ikuspegi osoa izan nahi duten profesionaleri dago zuzenduta, baita prestakuntza-prozesuetan, autoebaluazio-prozesuetan eta beste prozesu batzuetan hobekuntza-

eremuak identifikatzea ahalbidetuko duten ebaluazio-prozesuak diseinatu nahi dituztenei ere.

1.3. Dokumentuaren egitura

Dokumentu honetako lehen kapituluan, berariaz nabarmendu da zeinen garrantzitsua den irakasleek profil-eredu egokia izatea egungo erronkei erantzuteko; orobat, dokumentuan garatzen den eredua definitzeko lehen urratsak egiten dira.

2. kapituluan, «*Irakasle-profila definitzen duten eremu eta dimentsioak*» izenekoan, funtsezko hiru eremu aurkezten dira: JAKITEA, EGITEA eta IZATEA. Lehenengoak irakaskuntza-lana egiteko beharrezkoak diren ezagutzei egiten die erreferentzia. Bigarrena, hau da, EGITEA, lotuago dago behagarriagoa den praktika zuzenarekin. Horixe da, hain zuzen, ebaluazio-prozesuetan tradizionalki gehien hartu izan dena aintzat. Gainerako bi eremuek baino garapen handiagoa izan du, eta hiru dimentsioak osatzen dute: planifikatzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak kudeatzea eta prozesu horietan inplikaturako gainerako eragileekin elkarreraginean aritzea. Azkenik, IZATEA dago; horrexek ematen du balio erantsia eta bermatzen du gainerako dimentsioak garatzeko eta heziketa-xedeak betetzeko arrakasta. 11. eta 27. orrialdeetan eremuak, dimentsioak eta kompetentziak laburbiltzen dituen koadro bat dago (kompetentzia horiek dira irakasleak balorazio-irizpideen bidez baloratzeko sistemaren oinarria).

Alabaina, aipatu behar da ezen, nahiz eta sailkapena deskribapen hori errazteko planteatu den, hiru dimentsioak estuki lotuta daudela eta, horregatik, zaila dela dimentsio bat gainerakoak aintzat hartu gabe ulertzea.

3. kapituluan, 2. kapituluan definitutako bost bloke handiak garatzen dira. Bloke bakoitza gaitasunen garapenaren berri ematen duten lau mailaren arabera dago deskribatuta, ezkerretik eskuinera, progresio gorakorrean. Egitura hori lagungarria izango da autoebaluazio-prozesuetan edo prestakuntza-ebaluazioetan hobekuntza-eremuak identifikatzeko eta objektibizazioa eta homogeneizazioa egiteko, une jakin batean irakaste-kompetentziak aztertu behar badira.

4. kapituluak balizko ebaluazio-prozesuekin du zerikusia. Uste dugu irakaste-kompetentzia hobetzea sustatzeko prozedurarik efikazena eta efizienteena autogogoetan eta akonpainamenduan oinarritutako prestakuntza-ebaluazioa dela.

Azkenik, beste atal bat osatu da, lan hau egiteko kontsultatu diren iturri bibliografikoak eta webguneak biltzeko.

2. Irakasle-profila definitzen duten eremu eta dimentsioak

Irakasle-profila definitzen duten kompetentziek elementu kognitiboak, jarrerak eta trebeziak barne hartzen dituzte, osagai horiek bidea ematen baitute testuinguru jakin batean irakaskuntza-jardunaren maila guztietan hezkuntza-arazoak konpontzeko.

Kompetentzia profesionalaren definizio gehienetan aitortzen da kompetentzia profesionala ez dela atazak testuinguru jakin batean behar bezala gauzatzeko abilezia edo trebezia multzoa bakarrik; horrez gain, **JAKITEAREKIN**, **EGITEN** jakitearekin eta **IZATEN** jakitearekin zerikusia duten ezaugarri batzuk ere baditu (Tunning proiektua, 2003).

Horri jarraikiz, honela definitu daitezke irakasleen kompetentzia profesionalak: *kalitatez irakasteko beharrezkoak diren ezagutzen, trebetasunen, jarreraren eta balioen multzoa, zeinak hezurmamitzeko beharrezkoa baita zehaztea hezkuntzako profesionalek zer jakin behar duten, zer egin behar duten eta nolakoak izan behar duten*. Hiru elementu garrantzitsu horiek dira dokumentu honetan proposatzen den irakasle-profila deskribatzeko ardatzak.



IRAKASLE PROFILAREN EREMUAK, DIMENTSIOK ETA KOMPETENTZIAK

Lehenengo eremuak irakasleak bere zeregin profesionalerako behar dituen ezagutzen multzoari egiten dio erreferentzia. Barne hartzen ditu irakasleari irakaskuntza-jarduera planifikatzeko eta kudeatzeko erabilgarriak izango zaizkion ezagutza zientifiko eta psikopedagogikoak. Ezagutza teoriko eta praktikoen multzoa da, irakasleari hauek guztiak egiteko gaitasuna ematen diotenak: irakaskuntza-ikaskuntza prozesu egokienak diseinatzea, helburuak betetzeko eta ikasleen oinarritzko konpetentziak garatzen laguntzeko; prozedura didaktiko eta metodologiko eta baliabide eta material eraginkorrenak hautatzea eta erabiltzea, eta ikasle guztien beharrianak identifikatzea eta artatzea. Halaber, bloke horrek barne hartzen ditu, esaterako, ikastetxearen eta talde-lanaren antolaketaren gaineko ezagutzak izatea eta ikastetxearen inguruneko ezaugarrien jakitun izatea. Laburbilduz, irakaskuntza-jarduna behar bezala egiteko beharrezkoak diren ezagutza profesional guztiak hartzen ditu barne.

Bigarren blokeak irakasleak egiten duenarekin du zerikusia, praktikarekin eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak gertatzen diren egoerak kudeatzearekin. Hiru dimentsio nagusi daude: lehenengoa lotuta dago hezkuntza-prozesuak planifikatzearekin, programatzearekin eta diseinatzearekin, testuinguruaren arabera beti (eskola, etapa, maila sozioekonomiko eta kulturala, ikasleen ezaugarriak, etab.) eta analisia abiapuntutzat hartuta; orobat, planifikazioa berrikusteko aukera ere barne hartzen du, berau hobetzeko. Bigarren dimentsioa ikaskuntza-egoerak kudeatzeko beharrezkoak diren konpetentziei buruzkoa da, barnean hartuta, adibidez, motibazioa eta ikasgelako giroa. Eta, azkenik, hirugarren dimentsioak profesionalak eskola-komunitate osoarekin duen elkarerraginean jartzen du arreta, eta barnean hartzen ditu, besteak beste, talde-lana, familiekiko harremana, ikastetxearen kudeaketan duen inplikazioa, beste ikastetxeekiko harremana eta hezkuntza-prozesuari balioa eman diezaioketen inguruneko eragileekiko harremana.

Hirugarren eta azken blokea irakasle izateari dagokio. Ezaugarri pertsonalei, hezkuntza-arloko profesionalen kode etikoari eta irakaskuntzarekiko konpromiso pertsonalari egiten die erreferentzia. Zaila da "irakasle izateari" buruzko judizioak ematea, baina, hala ere, ezinbestekotzat jo da hemen txertatzea sustatu nahi den profilaren irudi oso bat emateko.

Izan ere, paradigma bat planteatzen da: irakasleak prestakuntza akademiko ona izan eta dagokion ezagutza-eremua menderatzeaz gain, beharrezkoak ditu pertsonen arteko harremanetarako trebeziak eta konpetentzia komunikatiboak, asertiboak eta emozionalak, baina baita bestelako ezaugarriak ere, intelektual erreflexiboa izateko eta arazo sozial garrantzitsuez jakitun egoteko.

Jarraian, xeheago deskribatzen dira arestian aipatutako eremuak, dimentsioak eta konpetentziak.

2.1. JAKITE eremua

Eremu honek irakasle-funtzioa gauzatzeari berezkoak zaizkion ezagutza teoriko eta praktikoekin du zerikusia.

Irakasleek sakonki ezagutu eta ulertu behar dituzte ikaskuntzaren xede diren diziplinak eta curriculumaren, ikaslearen eta ikaskuntza-testuinguruaren arteko bitartekaritza egokia egiteko ezagutzak, kompetentziak eta tresna didaktiko-pedagogikoak. Hala ere, ezin da ahaztu ikaskuntza testuinguru zehatzetan gertatzen dela, eta, beraz, testuinguru horien inguruabar eta ezaugarri propioak aintzat hartu behar direla irakaskuntza-jarduera diseinatu eta garatzeko. Horrenbestez, funtsezkoa da ikasleen ezaugarri pertsonalak eta beren testuinguruak ondo ezagutzea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren plangintzan aintzat har daitezen.

Eremu honetako kompetentziek honako alderdi hauen gaineko ezagutza behar dute, nahitaez:

a) Araudiaren, ikasgaiaren eta curriculumaren gaineko ezagutza

Indarreko curriculum-esparrua ezagutzea (esparru pedagogikoa, kompetentziak, helburuak, edukiak, irizpideak eta adierazleak, eta irakatsiko den arloa, ikasgaia, irakasgaia, modulua, eremua... ebaluatzeko adierazle edo estandarrek).

Horrez gain, indarrean dauden legezko errekerimenduak eta prozedurak ere ezagutu behar dira (adingabeak babesteko eta beren ongizatea bermatzearekin zerikusia duten arloetako jarduketa-protokoloak, inklusioa, berdintasuna, ekitatea, datuen babesa...), baita alderdi administratiboak ere.

Ildo horretan, ezinbestekoak dira jarraian datozen guztiak. Ebaluazioa objektiboa eta bidezkoa izango dela bermatzeko, prozedurei, tresnei, ebaluazio-teknika eta -estrategiei, kalifikazioari, hurrengo mailara igarotzeki eta titulua lortzeki buruzko araudi eguneratua ezagutzea.

Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoak, eskuragarri dauden tresna eta baliabideak, eginda dauden protokoloak eta eskola-komunitate osoaren eskubide eta betebeharrak kudeatzea eta bermatzea ahalbidetzen duen araudi-esparrua ezagutzea.

Ezagutza zientifiko eta eguneratua izatea ematen den eremuko, arloko, ikasgaiko, moduluko... edukiari eta edukien arteko eta edukien barneko harremanari buruz.

b) Ezagutza pedagogikoa

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen oinarrizko alderdiak ezagutzea, eta ikasleentzat motibagarriak eta esanguratsuak izango diren egoerak planifikatzeko, antolatzeko eta garatzeko trebezia izatea,

hori guztia lagungarri gerta dadin ikaskuntza eraginkorra izateko eta estrategia intelektualak, ikaskuntzen interakzioa, sozializazioa eta norberaren ikaskuntzaren kontrola baliatzeko.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua testuinguruan jartzeko, egokitzeko eta malgutzeko gaitasuna izatea. Hori guztia egiteko, teoria pedagogiko eta praktika metodologiko egokiak ezagutu eta erabili beharko ditu irakasleak. Hau da, programak eta metodologia testuinguru sozial, talde eta ikasle bakoitzaren premia zehatzetara egokitzen jakin behar du.

Ikasleek beren oinarriko konpetentziak nola gararazi jakitea. Pentsatzen, ikasten ikasten, pentsamendu sortzailea erabiltzen... irakastea, arlo horiek sustatzen dituzten estrategia metodologikoen bidez (proiektuetan, arazoetan, erronketan... funtsatutako irakaskuntza), eta balioetan oinarrituta heztea edo herritarren partaidetzara bideratutako heziketa ematea. Heziketa emozionala ezin da alde batera utzi hezkuntza integratua lortu nahi duen hurbilpen pedagogiko batean; horregatik, irakasleak ikasleei beren emozioak kudeatzeko lagungarriak izango zaizkien estrategiak garatzen laguntzeko ezagutzak eduki behar ditu.

Ikasgelan eta ikastetxean bizikidetzaren positiboa sustatzen duten estrategiak ezagutzea, sor daitezkeen gatazkak egoki kudeatzen eta konfiantzazko, errespetuzko eta lankidetzako giroa sortzen jakitea, betiere ikasleei taldekide direla sentiarazita. Hezkuntza-esperientzia arrakastatsua eta jardunbide egokiak ezagutzea.

c) Eskolaren inguruaren/testuinguruaren gaineko ezagutza

Eskolaren ingurunea/testuingurua xeheki ezagutzea (familiak, eskola-kultura, ingurune fisikoa eta eremu horretako baliabideak) eta ezagutza hori irakaslearen irakaskuntza-lanean erabiltzea.

d) Eskolaren antolaketaren eta curriculumari, didaktikari eta antolaketa eta funtzionamenduari buruzko dokumentuen gaineko ezagutza

Ikastetxearen kudeaketari eta antolaketari eta ikastetxean, sailetan, zikloetan eta etapetan egiten diren programa eta proiektu espezifikoari buruzko dokumentuak ezagutzea. Dokumentu horien arteko koherentzia, jarraitutasunean eta konexioan laguntzea.

e) Ikasleen gaineko ezagutzak

Egokiro ezagutzea ikasleen adinari dagozkion eboluzioaren eta garapenaren ezaugarriak, haien berezitasun kultural eta sozialak eta haien esperientziak, ezagutzak, trebeziak, konpetentziak, premiak, interesak eta hezkuntza-arloko itxaropenak.

f) Hizkuntza-kompetentzia

Egin beharreko zereginak egiteko beharrezkoak diren hizkuntzetan kompetentzia komunikatiboa izatea.

Komunikatzeko gaitasuna izatea, gutxienez, autonomia-erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan.

g) Kompetentzia digitala

Informazioa kudeatzeko, komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko, edukiak sortzeko eta arazoak segurtasunez eta era kritikoan ebazteko kompetentzia digitala izatea.

IKTak erabiltzen jakitea, ikaskuntza-helburuak lortzeko eta ikasleen kompetentziak garatzen laguntzeko.

2.2. EGITE eremua

EGITEA terminoak aintzat hartzen ditu irakasleak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen arrakasta bermatzeko egiten dituen ekintza guztiak, bai irakaskuntza-lana gelan, bai ikasleekin zuzenean harremanetan dagoenean, baita aurretik, paraleloan edo ondoren egiten den lanean ere.

Eremu horretan sartzen dira irakaskuntza-ikaskuntza planifikatzea, kudeatzea eta elkarreraginean aritzea.

2.2.1. EGITE eremua - «PLANIFIKATZEAREN» dimentsioa

Planifikatzea ezinbesteko premisa da irakaskuntzaren funtzioa gauzatzeko, eta espresuki dago jasota irakasleei legez esleitutako funtzioetan. Plangintza ikuspegi didaktikoaren eta irakasten eta ikasten dutenen rola ulertzeko moduaren berri ematen duen aurreratze-ariketa bat da. Planifikatzeko, ezinbestekoa da irakaskuntza-jarduerei eta ikasleen ikaskuntza-praktikei buruz gogoeta egiteko espazio sistematiko bat sortzea; alabaina, praktika horiek antolatzeko, analizatzeko eta berrikusteko aukera ere ematen du.

Haxe da planifikatzea: zer egingo den erabakitzea eta unean-unean egin beharreko doikuntzak egitea, honako galdera hauen gaineko hausnarketaren bidez: Zein kompetentzia garatu behar dituzte ikasleek? Zer ikasi behar dute eta zertarako? Nola? Non? Noiz? Nola erraztuko dut ikasleek interesa eta motibazioa sentitzea? Nola lortuko dut ikaskuntzak esanguratsuak izatea? Nola sustatuko dut autonomia? Nola egingo diet jarraipena aurrerapenei? Nola erantzungo diot aniztasunari? Zer eta nola irakatsiko dut? Zer egingo dut ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta? Nola baloratuko dut plangintza egokia izan den eta zein alderdi hobetu daitekeen?

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua behar bezala planifikatzea lagungarria da lortu nahi diren helburuak betetzeko eta, ondorioz, garatu nahi diren kompetentziak garatzeko aukerak handitzeko.

Eremu honetako konpetentziak alderdi hauekin daude lotuta:

a) Ikasleen hezkuntza-premien eta -itxaropen kolektibo eta indibidualen diagnostikoa egitea

Hezkuntza-premia eta -itxaropen kolektibo eta indibidualak diagnostikatzea. Halaber, ikasleek dituzten konpetentzien eta aurretiazko ezagutzen garapen-maila identifikatzea.

Indarreko curriculum-esparrua eta ikastetxeko programa eta proiektuak dagokion taldearen testuinguru espezifikora eta ikasle bakoitzaren eboluzioaren ezaugarrietara eta ezaugarri soziokulturaletara egokitzea.

Ikasleen ikaskuntza-prozesuari heltzeko, oinarritzat hartzea haien aurretiazko konpetentzia eta ezagutzak eta haien hezkuntza-premien eta -itxaropenen diagnostikoa.

b) Helburuak ezartzea eta hezkuntzako esku-hartzea eta ikaskuntza-egoerak diseinatzea

Planifikatuko den aldian garatu beharreko oinarritzko konpetentziak zein diren adieraztea. Egindako diagnostikoarekin bat datozen irakaskuntza-ikaskuntza helburuak formulatzea. Bertan, modu argian adierazi behar dira xedeak, eta, edonola ere, ikasleei lagungarriak izan behar zaizkie beren konpetentziak garatzeko.

Ikaskuntza-egoera zehatzak diseinatzea, aurreikusitako helburuak betetzera eta eskuratu beharreko konpetentziak garatzera bideratuta, betiere kontuan izanda ikasleen egoera, ezaugarri eta aukera pertsonal eta kolektiboak (garapen gertuko eremuan, betiere).

Proposamen metodologikoen aniztasuna sustatzea, baldintza hauek betetzen badituzte: praktika aktiboa, parte-hartzea, lankidetzeta eta ikaskuntza esanguratsu eta transferigarriak bultzatzea; ikasteko modu, abiadura eta estilo ezberdinei erantzutea; ikaskuntza bera kudeatzea, eta etekina ateratzea lankidetzeta-metodologiei, arazoei, erronkei, proiektuei...

Modu integratu eta koherentean hornitzea baliabideak, espazioak, denbora, rola eta teknologiak, baina, betiere, konpetentziak garatzeari eta ezarritako helburuak betetzeari begira.

Ikaskuntzaren aurrerabideari jarraipena egiteko eta proposatutako atazen egokitasuna analitzatzeko eta, beharrezkoa bada, doikuntzak egiteko prozedurak, teknikak, tresnak eta denbora planifikatzea.

Gainerako profesionalekin koordinatzeko momentuak eta prozedurak aurreikustea, ikastetxeko maila eta etapa guztietako helburuak eta prozedurak koherenteak direla bermatzeko.

c) Aniztasunari emango zaion erantzuna eta ikaskuntzaren aurrerabidea planifikatzea

Oinarrizko arrakasta-mailak finkatzea eta ikasleen aniztasunera moldatzea.

Esplizituki aurreikustea aniztasunari emango zaion erantzuna, barne hartuta gaitasun handiko ikasleei emango ziena.

Ebaluazio-adierazle eta -estandar edo ikaskuntza-emaizta egokiak formulatzea, lortutako arrakasta eta arrakasta horretarako aurrerabidea egiaztatzen lagunduko dutenak.

d) Prestakuntza-ebaluazioa egiteko eta irakaskuntza-plangintza eta -praktika doitzeko aurreikuspenak egitea

Aurreikuspenak egitea prestakuntza-ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren prozedurei, tresnei, irizpideei eta ebaluazio-adierazleei dagokienez. Horiek guztiek aukera eman behar dute, batetik, balioesteko zer kompetentzia-maila garatu duten ikasleek, eta, bestetik, planteatutako ikaskuntza-prozesua berrikusteko eta doitzeko.

2.2.2. EGITE eremua – «IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA PROZESUA KUDEATZEA» dimentsioa

Dimentsio honetan, ezinbestekoa da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan parte hartzen duten eta ikastetxearen esku dauden alderdiak mobilizatzea. Gehiago zabalak onartzen du ikasleen ikaskuntzen kalitatea ikasgelaren kudeaketarekin zerikusia duten alderdi psikologiko, sozial, afektibo, emozional eta materialen arabera dela, neurri handi batean. Horregatik, funtsezkoa da horiek guztiak osagai kognitiboarekin integratzen saiatzea eta ulertzea elementu horiek guztiak gako direla ikasle guztientzako ikaskuntza- eta garapen-aukerak sortzeko. Horrez gain, eguneroko praktikan aintzat hartu behar da ikaskuntza-prozesuaren azken helburua ikasleen garapen integrala dela, herritar arduratsuak, libreak, demokratikoak eta berdinzaleak izan daitezen.

Eremu honetako kompetentzien bidez, alderdi hauek garatzen dira:

a) Bizikidetzeta eta ikaskuntza-giro ona kudeatzea

Bizikidetzeta positiboa aktiboki kudeatzea eta ikasgelan interakzio eraikitzaileak, ikaskuntza, inklusioa eta ekitatea errazten dituen giroa sortzea. Ikasgela helburu horiek sustatzeko moduan antolatzea. Horretarako, beharrezkoa da:

Bizikidetzeta positiborako eta ikaskuntzarako giro egoki eta estimulatzailerako sortzea, irakasleek ikasle guztien ikaskuntza- eta garapen-aukerari dagokienez dauzkaten itxaropen handien eta konpromisoaren erakusgarri izango dena.

Kolektiboki adostutako kudeaketa- eta jarduketa-arau eraikitzaileak finkatzea eta mantentzea, barne hartuta gatazkak prebenitzekoak eta gatazkak modu baketsuan ebaztekoak.

Taldearen kohesioa lortzeko eta indibidualtasunak taldean behar bezala integratzeko lan egitea.

Ikasgela konfiantzan, onarpenean eta errespetuan oinarritutako giro batean kudeatzea.

Taldeak ikasgelan, ikastetxean eta ikastetxetik kanpo (elkarteetan, beste ikastetxe batzuetan...) interakzio positiboak izan ditzala sustatzea. Harremanetarako konpetentzia egokiak izatea lagungarria izango da ikasgelan sortzen diren elkarreraginen bidez helburuak betetzeko. Gatazkak modu egokian kudeatzea eta jarrera kolaboratzailea eta parte-hartzailea izatea gako izango dira arrakasta lortzeko.

Ikasgelaren antolaketaz eta bertan gertatzen diren elkarreraginen kudeaketaz kontziente izateak baldintzatu egingo ditu lan-dinamikak, jarduera motak eta, neurri batean, sustatzen diren konpetentzia motak.

b) Ikaskuntza-egoerak kudeatzea. Ikasgelaren antolaketa. Estrategia metodologikoak. Baliabide didaktikoak. IKTen erabilera. Rolak banaketa. Ikasgelako elkarreraginak. Jarraipena eta feedbacka

Jarduketa plangintzaren arabera doitzea.

Helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak ezartzea, eta modu argian jakinaraztea ikasleei eta, adingabekoak badira, haien senideei.

Irakaskuntza-saioetan ikasleei saioaren garapenez kontziente izateko egitura bat erabiltzea: saioaren egituraren eta helburuen berri ematea, aurreko ikaskuntzekin lotura egiteko eta gogoeta sustatzeko. Ikasleen interesen berri jasotzea.

Berdinen arteko lankidetzako ikaskuntza, parte-hartzea eta komunikazioa sustatzeko moduan antolatzea ikasgela.

Askotariko baliabide erabilgarri eta berritzaileak erabiltzea, ikaskuntza-helburuak beteko direla eta eskuratu beharreko konpetentziak garatuko direla bermatzeko.

IKTen erabilera integratzea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren garapenean, informatzeko, komunikatzeko, motibatzen eta errazteko duen balioaz aprobetxatuta.

Metodologia eraginkorrak erabiltzea erritmo ezberdinei erantzuteko, motibazioa sustatzeko eta oinarrizko konpetentziak garatzeko.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren rola ezartzea (irakaslearenak, ikasleenak, beste hezkuntza-eragile batzuenak). Irakasleak bidea

eman behar dio ikaskuntzari, ikasleak bideratu, motibatu, tutorizatu, lagundu; ikasteko inguruabar eta baliabide egokiak sortu; ikasleen ikaskuntzetan inplikatu, eta ikasleen elkarreraginak, ikaskuntza aktibo eta esanguratsua, autonomia, konpetentzien garapena, jarrerak eta balioak sustatu.

Ikasleak erdigunean jartzen dituzten askotariko jarduera motibagarriak sustatzea, ikaskuntza-estrategia ezberdinak, lankidetzeta eta ikasteko erritmo eta modu ezberdinetara egokitzea sustatuko dutenak.

Lorpenak azpimarratzea eta indartzea, eta akatsak ikasteko erabiltzea.

c) Ikaskuntzaren aurrerabidea kudeatzea. Ebaluazioa

Ikasleei ikaskuntzaren helburuen, garatu beharreko gaitasunen eta erabiliko diren prozeduren berri esplizituki ematea.

Modu argi eta zehatzean ezartzea ebaluazio-, kalifikazio- eta igarotze-irizpide eta -adierazleak, errazagoa izan dadin prozesuen jarraipena egitea eta hartutako kalifikazio-erabakiak justifikatzea. Nahitaezko ikaskuntzen eta konpetentzien lorpen-maila egokia neurtzeko irizpide eta adierazleak identifikatzea.

Zehaztasunez jasotzea zein den ikasle bakoitzaren hasierako egoera eta egin beharreko aldaketak egitea irakaskuntza-ikaskuntza prozesua pertsonalizatzeko.

Prestakuntza-ebaluazioa egitea, argi eta garbi, horretarako, beharrezkoa bada, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua birbideratuta.

Askotariko ebaluazio-prozedura eta -tresnak erabiltzea, autonomia eta akatsetik abiatutako ikaskuntza sustatzeko balio dutenak.

Ikasleen egoera indibidual eta kolektiboetara egokitzen diren ebaluazio-prozedurak ezartzea, presentzialki nahiz urrutitik egin daitezkeenak.

Emaitzei buruzko informazioa ematea ikasle eta familia guztiei, eta proposamenak egitea eta gomendioak ematea ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan aurrera egiteko.

d) Inklusioa

Ikasleen ezaugarriekin bat etorriko diren ikaskuntza-egoerak proposatzea, betiere baliabide, material, espazio eta denbora egokiak eta beren kudeaketa ona aurreikusita.

Ikaskuntza-aukeren antolaketan eta ikasle guztien garapenean oinarritutako metodologia bat erabiltzea. Horretarako, ikasleak motibatuko dituzten egoera produktibo eta esanguratsuak antolatu behar dira, ikasleen egoera eta interesa abiapuntutzat hartuta eta

beren ezaugarrietara egokituta, denbora eta eskuragarri dauden baliabideak erabiliz ikaskuntza modu eraginkorrean lortzeko.

Hauek guztiak sustatzea: parte-hartze aktiboa, ikerketa, curiositatea, interesa, ekimena, sormena, aktibitatea, zentzu kritikoa, progresiboki gero eta konplexuagoak diren estrategia intelektualak erabiltzea, banakako eta taldeko lana, lankidetzeta, eta interakzioa eta sozializazioa ikaskuntzak eraiki eta finkatzeko.

Ekitatea eta bikaintasuna bultzatzea eta aniztasunari modu egokian erantzuteko, ikasteko modu eta erritmo ezberdinei erantzuteko eta ikasle guztien garapen-mailarik handiena bilatzeko estrategiak garatzea, beren abiapuntua edozein dela ere, inklusioaren esparruan.

Ikasleen ezaugarrietara egokituta dauden eta egindako esfortzuak eta abiapuntuarekiko aurrerapenak aintzatesten dituzten ebaluazio-estrategiak eta ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak erabiltzea, betiere ikasle bakoitzaren potentzialtasunak kontuan hartuta.

e) Ikasleak beren ikaskuntzetan inplikatzeko

Ikasle guztien inplikazioa eta parte-hartzea sustatzea, hala beren ikaskuntza propioan, nola besteenean.

Ikaslea bere ikaskuntzen protagonista aktibo duten egoerak dinamizatzea.

Motibazioa, inplikazioa eta konpromisoa bultzatzea, ikasleek jakiteko eta ikasteko, eta ikasitakoa kideekin partekatzeko duten gogoia areagotuta.

Autoebaluaziorako eta koebaluaziorako gaitasunak garatzea, ikuspegi kontraktibo batetik eta akatsa ikaskuntza-aukeratzat hartuta.

Ikasleek gainerakoen eskola-arrakastan duten inplikazioa garatzea.

Ikasleen parte-hartzea areagotzea ikasgelan eta ikastetxean, egindako aurrerapenen berri eman dezaten.

Arauek ikasleek ulertzeko moduko argudioekin negoziatzea.

Estrategia objektiboak aurreikustea eta erabiltzea, ikaskuntza-helburuen betetze-maila ebaluatzen lana errazteko. Horrez gain, ikasleei beren ebaluazioaren emaitzetan eta ikaskuntzan aurrera egin eta zailtasunak gainditzeko lagungarriak izan daitezkeen gomendioetan parte hartzeko prozedurak erabiltzea.

Ikaslearen proiektu pertsonalak definitzen laguntzea, haren erantzukizuna eta konpromisoa garatzen laguntzeko.

f) Tutoretza eta orientazioa. Balioetan oinarrituta hezte

Ikasleen tutoretzaz eta orientazioaz arduratzea, familiekin eta beste profesional batzuekin koordinatuta. Kasu batzuetan, gainera, taldearen tutore ere izatea.

Eskola-testuinguruan gauzatzen diren jarduketan pedagogikoak pertsonalizatzea, eta jarduketan horietan lankidetzaren eta koherentzia sustatzea familia-ingurunean.

Ikasleei orientazioa eta laguntza ematea, indibidualki nahiz kolektiboki; ikaslearen garapen sozio-afektibo eta emozionalaz kezkatzea; arazo- edo zailtasun-seinaleen aurrean erantzutea (bai eskola-komunitateko beste kide batzuekiko elkarreraginari dagozkienak, bai beren ikaskuntza-egoerari dagozkienak); informazioa biltzea, ikasgela barruan eta kanpoan; eta informazio hori erabiltzea ikaslearen indarguneak areagotzeko eta zailtasunak gainditzeko, ikaslearen premiak artatzeko eta ikaslearen garapen integrala sustatzeko ekintzak egiteko edo proposatzeko.

Tolerantziaren, lankidetzaren, parte-hartzearen, autoestimua, erantzukizunaren, konstantziaren, eskuzabaltasunaren, zintotasunaren, kooperazioaren, eta ongizate komunarekiko eta partekatutako lanarekiko interesaren balioak eta jarrerak garatzea eta barneratzea sustatzea.

Balioetan oinarritutako heziketa bultzatzea, norbanakoari gizartean aktiboki eta modu arduratsuan parte hartzeko konpetentziak eta trebeziak eman diezazkion, lagungarria izango baita herritar arduratsu eta solidarioak eratzeko eta kritika eraikitzailea garatzeko.

2.2.3. EGITE eremua – «HEZKUNTZA-KOMUNITATEAN ELKARRERAGINEAN ARITZEAREN ETA PARTE HARTZEAREN» dimentsioa

Ikastetxea harreman- eta ikaskuntza-sistema konplexu bat da; premia, iritzi eta ikuspegi ezberdinak gogoan izanda hartu behar dira erabakiak, eredu pedagogiko demokratikoari jarraikiz. Erakunde aktibo eta parte-hartzailea izan behar du; helburuak, proiektuak eta erantzukizunak partekatu behar dira bertan, ikasleei kalitate handieneko prestakuntza ematera bideratutako elkarreragin-sarea eta ikastetxearen funtzionamendua ardatz hartuta, hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak bermatze aldera.

Komunitate profesionalean parte hartzearekin zerikusia duen eremu honetan jasotako konpetentziak eskuratzeko, ezinbestekoa da alderdi hauek ezagutzea:

a) Ikasleekin elkarreraginean aritzea

Irakasleak ikaslearen erreferentziako ereduak dira, kontzienteki eta inkontzienteki. Horregatik, beste heldu batzuekiko eta, bereziki,

ikasleekiko dituzten harremanek eragin handia izango dute ikasleek jaso eta beren bizitzan zehar garatuko dituzten jardunbideetan.

b) Irakasleekin elkarreaginean aritzea. Talde-lana egitea

Irakasleek gai izan behar dute beren lanpostuei dagozkien funtzio ezberdinak lankidetzan gauzatzeko. Gaur egun, kalitate-faktore funtsezkoa eta eztabaidea da talde-lana, erakunde funtzionamenduaz arduratzen diren diziplinetan. Hezkuntzaren arloan, hainbat ikerketak ondorioztatu dute lankidetzaren dela kalitateari eta hobekuntzari ekarpen handiena egiten dion faktoreetako bat.

Egungo hezkuntzako legeriak talde-lanerako aukera ematen du, eta koordinazio-, aholkularitza-, partaidetza-, kudeaketa- eta gobernu-organoak sortuta arautzen du talde-lan hori. Hezkuntza-proiektuek parte-hartzaile guztien inplikazioa behar dute, modu koordinatuan, beren helburuak betetzeko; horrela, banakako ekarpena gainditu eta talde-sinergia lortzen da.

Irakasle-funtzioa behar bezala gauzatzeak inplizituki dakar berekin ikastetxeko gainerako profesionalekin harreman parte-hartzaile eta koordinatua eduki behar dela, hala ikastetxearen antolaketaren eta funtzionamenduaren kudeaketari, nola irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak gauzatzeari dagokionez.

Bereziki garrantzitsua da ikasle berberekin hartu-emanetan dauden profesionalen arteko koordinazioa, helburu eta estrategia metodologiko berberekin lan egitea, baliabideak mobilizatzea, ikasleen aniztasunari erantzutea eta emaitzak ebaluatzeko eta jarraipena egiteko sistemak erabiltzea doikuntzak egiteko, erabakiak hartzeko eta etengabe hobetzen jarraitzeko. Unitatearen barne- eta kanpo-ikuspegia ematen du talde-lanak.

c) Familiarekin elkarreaginean aritzea: familiak informatzea eta inplikatzeko

Familiak eta eskolak helburu bera dute: pertsona heztea, kontuan hartuta pertsona bakoitza bakarra eta berezia dela eta koherentzia eta jarraitutasuna behar dituela bi testuinguruen artean. Horregatik, elkarren osagarriak dira familiaren eta eskolaren arteko harremanak. Familien rola funtsezkoa da beren seme-alaben lorpen akademikoetan. Horregatik, esfortzuak familiaren eta eskolaren arteko lankidetzara bideratu behar dira: aldizkako koordinazioa lortu behar da; familien inplikazioa eta parte-hartzea sustatu, eta gurasoei beren seme-alaben prestakuntza-prozesuaren gaineko informazioa eta orientazioa eman. Bestalde, irakasleen eta familien arteko lankidetzaren harremanak irakasleen funtzioen araudian daude jasota.

d) Ingurunearekin elkarerraginean aritzea

Gure gizartea konplexua da; horregatik, ezinbestekoa da gizarte- eta hezkuntza-eragile ezberdinen arteko lankidetzaren eta talde-lana. Egungo testuinguruan, hezkuntza-sistemarentzat ezinbestekoa da ikastetxeekin eta bertan gauzatzen diren prestakuntza-prozesuekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten administrazio eta eragile guztien inplikazioa.

Hezkuntza-komunitatea eta bere ingurunea ezagutzeko eta bi horien arteko elkarerraginean dira kide izatearen sentimendua sortzeko eta inplikazioa eta lankidetzaren sustatzeko abiapuntuak. Hori oso lagungarria izango da eskolako giroa, ikastetxearen funtzionamendua eta ikasleen prestakuntza hobetzeko. Ez hori bakarrik, ikastetxea kanpora begira irekitzea eta bere ingurune natural eta sozialean txertatzea ere bada.

e) Beste ikastetxe edo erakunde batzuekin elkarerraginean aritzea

Garrantzitsua da beste ikastetxe edo erakunde batzuekin harremanetan egotea jardunbide egokiak partekatze, baliabideak aprobetxatzeko... Labur esanda, etengabe ikasi eta hobetzeko.

Ikastetxetik kanpoko beste profesional, ikastetxe, erakunde, instituzio eta eragile batzuekin lankidetzan aritzeko sare birtualek balio erantsia sortzen dute, eta, gainera, erantzuna ematen diote gero eta nabarmenagoa den berrikuntza-premiari, irakaskuntzan hobekuntzak lortuta hartara.

f) Ikastetxearen kudeaketan parte-hartzea eta lankidetzan aritzea

Halaber, irakasleek ikastetxearen kudeaketan parte hartu behar dute, ikastetxea bere osotasunean hartuta, eta ez soilik beren ikasgela hartuta laneko ingurunetzat. Horrek esan nahi du proiektu komun baten prestakuntzan eta garapenean parte hartu behar dutela, baita erabakiak hartu ere, alderdi pedagogiko eta curricularrei, antolakuntzakoei, administratiboei, komunitarioei eta gizarte-partaidetzari dagokienez.

Horrekin batera sustatzekoak dira, halaber, ikasleen, familien eta ikasgelako eta ikastetxeko zereginetan inplikaturik dauden profesional guztien konpromisoa eta hezkuntzaren arloko barne- eta kanpo-eragile guztiekiko lankidetzaren.

Hau da, ikastetxearen hezkuntza-proiektuan, ikastetxearen ideietan eta ikasle guztientzako esku-hartzeak hobetzera bideratutako erabaki handietan parte hartu behar dute. Proiektu komun baten prestakuntzan eta garapenean eta erabakiak hartzeko prozesuan parte hartu behar dute, ikastetxea hobetzeko irizpideak ardatz hartuta, norberaren interesen gainetik.

2.3. IZATE eremua

Dimentsio honek irakaskuntzaren arauditik eta araudi horri aplikagarria zaion kode deontologikotik eratorritako erantzukizun profesionaleri heltzen die.

Eremu honetako konpetentziei bidez (irakasle izaten jakitea) alderdi hauek garatzen dira:

a) Tasun pertsonalak: tasun emozionalak, humanoak, etikoak eta profesionalak

Tasun teknikoez gain, irakaskuntzako profesionalek tasun emozionalak, humanoak eta etikoak ere izan behar dituzte, behar bezala irakasteko. Besteak beste, honako hauek nabarmendu daitezke: kalitate humanoa, inplikazioa, enpatia, proaktibotasuna, gizarte-trebetasunak, komunikatzeko gaitasuna, lidergo positiboa, erabakiak hartzeko gaitasuna, eta ikasteko eta irakasteko grina. Ezinbesteko eskakizunak dira ikasleen arrakasta lortzeko jarrera konprometitua izatea, hobekuntzak egiteko parte hartzea eta ekarpenak egitea, lankidetzan aritzea eta partekatzea; baina, horiez guztiez gain, funtsezkoak dira, halaber, oreka emozionala, ikasgela barruan edo kanpoan gerta daitezkeen egoera konplikatuen aurreko autokontrola eta ikasleekiko eta eskola-komunitateko beste kideekiko interakzioa.

Legez ezarritako betebeharrak (lanekoak eta profesionalak) betetzea irakasleak ikasgela barruko eta kanpoko proiektu kolektiboekiko duen loturarekin eta konpromisoarekin dago erlazionatua. Dena den, honako hauek ere beharrezkoak dira: lankidetzaren arduratsua ezartzea, bizikidetzaren giro ona eta harreman positiboak sortzea, ikasleen eta beren familien eskubideak babestea, autokritika eta kritika eraikitzailea egitea, eta negoziatzea.

Irakasleek ere ikasleen osotasun fisiko eta morala bermatzeko erantzukizuna dute, indarreko legeriaren eta erantzukizun horiek betetzeko jarraibideak eta erraztasunak ematen dituzten jarduketaren protokoloen arabera.

b) Hezkuntzaren funtzio soziala norberaren gain hartzea

Horretarako, oinarrizko eskubidetzat hartu behar da hezkuntza. Ekitatez jardun behar da, ahalik eta kalitate handienarekin eta norbanakoen eta gizartearen iritzi etikoak eta balio moralak gertu-gertutik jarraituta eta errespetatuta. Gauzak horrela, ikasle guztien ikaskuntza eta prestakuntza integral arrakastatsua lortzeko inplikatu behar du irakasleak. Horrez gain, bermatu behar du bere programetan ez dela diskriminaziorik egingo ez generoagatik, ez etniagatik, ez erlijioagatik, ez arrazoi sozialengatik, eta programok

bide eman behar dute indarkeria, aurreiritziak eta diskriminazioak prebenitzeko.

c) *Hezkuntza-emaitzen gaineko erantzukizuna*

Aintzat hartu behar da irakaskuntza-lana egiten dutenen helburua ez dela “ondo irakastea”, baizik eta ikasleen kompetentziak progresiboki garatzea eta aurrerapenak ikustea. Aurrerapen horiek ikaskuntza-emaitzetan islatzen dira.

Horretarako, modu sistematikoan erabili behar da *diagnostikoa - plangintza - praktikara eramatea - ebaluazioa - doikuntza* zikloa, ikaskuntza-prozesua etengabe doituta ikasle guztiei arrakasta lortzen laguntzeko.

Ezinbestekoa da irakaskuntza-jardunari eta emaitzei buruzko gogoeta indibidual eta kolektiboa egitea. Irakasleak prest egon behar du kritika eraikitzaileak egiteko eta jasotzeko, aldaketak onartzeko, talde-lana egiteko, hezkuntza-praktika eta -jardunbideak partekatzeko eta erkatzeko, esperimendazioa egiteko, eta prestakuntza jasotzeko. Horrek guztiak lagunduko du ikaskuntza berriak txertatzen, irakasleen kompetentziak hobetzen eta eguneratzen, eta ikasleek beren ikaskuntzak gauzatzeko eraginkorragoak izaten.

Ildo horretan, garrantzitsua da aldian-aldian egitea barne- eta kanpo-ebaluazioen emaitzen analisia eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetu egingo dela bermatzeko prozedurak antolatzea.

d) *Etengabeko ebaluazioarekin konprometitzea. Berrikuntza eta esperimendazioa*

Etengabeko prestakuntzak ondorioak ditu ikasleen ikaskuntza-emaitzetan eta ikastetxearen funtzionamendu egokian. Etengabeko ikaskuntza, ikerketa didaktikoa eta esperimendazio metodologikoa lagungarriak izango dira estrategia didaktiko-pedagogikoak ikasgelako beharrezanetara egokitzeko eta eguneratzeko. Irakasle bakoitzak identifikatu behar du zer prestakuntza-eremuk laguntzen dioten irakaste-kompetentziak hobetzen; edonola ere, etengabeko prestakuntza eraginkorragoa izango da, planifikatuta eta taldeetan edo sareetan antolatuta badago. Gainera, azken horrek irakasleen arteko lankidetzakomunitateak sortzen laguntzen du.

e) *Norberaren lana kudeatzea eta hobekuntza-erabakiak hartzea*

Beren jardun profesionalean, nahiko maiz gertatzen zaie irakasleei larritu egiten direla lan-karga handiegia edo estres emozionala daukatelako. Irakaskuntza-lana arrakastaz gauzatzeko, ezinbestekoa da atazak lehenesten jakitea, modu horretan lan-kargak murriztu eta estresa kudeatu ahal izateko. Ez hori bakarrik, egoera horiek

kudeatzeko eta gertatzen denari positiboki aurre egiteko gai diren pertsonak gogobetetasun pertsonal eta arrakasta profesional handiagoa lortzen dituzte.

IRAKASLE PROFILA

jakitea

- a) Araudiaren, ikasgaiaren eta curriculumaren gaineko ezagutza
- b) Ezagutza pedagogikoa
- c) Eskolaren ingurunearen/testuinguruaren gaineko ezagutza
- d) Eskolaren antolaketaren eta curriculumari, didaktikari eta antolaketa eta funtzionamenduari buruzko dokumentuen gaineko ezagutza
- e) Ikasleen gaineko ezagutzak
- f) Hizkuntza-kompetentzia

egitea

planifikatzea

- a) Ikasleen hezkuntza-premien eta - itxaropen kolektibo eta indibidualen diagnostikoa egitea
- b) Helburuak ezartzea eta hezkuntzako esku-hartzea eta ikaskuntza-egoerak diseinatzea
- c) Aniztasunari emango zaion erantzuna eta ikaskuntzaren aurrerabidea planifikatzea
- d) Prestakuntza-ebaluazioa egiteko eta irakaskuntza-plangintza eta - praktika doitzeko aurreikuspenak egitea

irakaskuntza-ikaskuntza prozesua kudeatzea

- a) Bizikidetzaren eta giro ona kudeatzea
- b) Ikaskuntza-egoerak kudeatzea
- c) Ikaskuntzaren aurrerabidea kudeatzea. Ebaluazioa.
- d) Inklusioa
- e) Ikasleak beren ikaskuntzetan inplikatzeko
- f) Tutoretza eta orientazio akademiko eta pertsonala. Familiekin koordinatzea. Balioetan oinarrituta hezte

hezkuntza-komunitatean elkarlarragitea eta parte hartzea

- a) Ikasleekin elkarlarraginean aritzea
- b) Irakasleekin elkarlarraginean aritzea. Talde-lana egitea
- c) Familiekin elkarlarraginean aritzea: familiak informatzea eta inplikatzeko
- d) Ingurunearekin elkarlarraginean aritzea
- e) Beste ikastetxe edo erakunde batzuekin elkarlarraginean aritzea
- f) Ikastetxearen kudeaketan parte-hartzea eta lankidetzan aritzea

izatea

irakasle izatea

- a) Tasun pertsonalak: tasun emozionalak, humanoak, etikoak eta profesionalak
- b) Hezkuntzaren funtzio soziala norberaren gain hartzea
- c) Hezkuntza-emaitzen gaineko erantzukizuna
- d) Etengabeko ebaluazioarekin konprometitzea. Berrikuntza eta esperientziak
- e) Norberaren lana kudeatzea eta hobekuntza-erabakiak hartzea

3. Irakasle-profilaren eremu eta dimentsioak. Konpetentziak eta garapen-mailak

3.1. Lau garapen-mailen deskribapen orokorra

Hurrengo atalean bost taula daude, eta lau garapen-maila txertatu dira horietako bakoitzean aurreko kapituluetan deskribatutako eremu eta dimentsioei dagokienez. Gaur egun, irakasle gehienak 2. eta 3. mailen artean daude. Argi dago 1. maila urria dela; aldiz, bikaintasunaren seinale dira laugarren mailako adierazle batzuk.

Maila horietako bakoitzean deskribatutako konpetentziak parametro hauekin datoz bat:

1. MAILA: Oinarrizkoa

Garapen-maila hau urria da. Lanbidea menderatzen ez duen irakasle bat deskribatzen du. Argi dago hobekuntzak egin behar direla. Hona hemen garapen-maila honen ezaugarrietako batzuk:

- a) Zailtasunak ditu testuinguruari berezkoak zaizkion ezaugarriak identifikatzeko, ulertzeko eta horietara egokitzeke. Bere jarduna ez dator bat ikasleen, ikastetxearen eta ingurunearen ezaugarriekin.
- b) Irakaskuntza-jardueraren planifikazioa txikia da.
- c) Mesfidati hartzen ditu aldaketak, eta zailtasunak ditu ezusteko egoerei aurre egiteko. Ez du bere jardunbidea aldatzen, nahiz eta bere ibilbide profesionalean araudi-aldaketak egon, irakaskuntza-jardueran zailtasunak izan edo ikasleek zailtasunak dituztela ikusi.
- d) Zailtasunak ditu ikasgelan bizikidetzara positiborako eta ikaskuntzarako giro ona sortzeko.
- e) Irakaskuntza-jarduna gehiago dago bideratuta bere irakaskuntzara ikasleen ikaskuntza-prozesuetara baino.
- f) Ikasleen ikaskuntzak ebaluatzeko erabiltzen dituen prozeduren objektibotasuna txikia da, eta hezigarriak baino, batutzaileak dira.
- g) Iniziatiba gutxi du. Gaitasun edo prestutasun gutxi dut lankidetzarako, koordinaziorako eta partaidetzarako. Prestutasun gutxi du berrikuntzako edo hezkuntza-esperimentazioko proiektuetan parte hartzeko.
- h) Zailtasunak ditu eskola-komunitateko gainerako kideekin modu asertiboan erlazionatzeko.
- i) Ez dauka ikastetxea hobetzeko eta eskola-komunitatearen eta, bereziki, ikasleen eskubide eta betebeharrak bermatzeko inplikazio nahikoa.

2. MAILA: Garatze bidean

Oro har, maila honetan dagoen profesional baten jardunak ikasleen ikaskuntza ziurtatzen duten minimoak bermatzen ditu, nahiz eta ez dituen alderdi guztiak menderatzen. Hobetzeko gaitasuna eta interesa erakusten du. Hauek izan daitezke garapen-maila honen ezaugarrietako batzuk:

- a) Hezkuntza-testuinguruaren exigentzien arabera jarduten du, nahiz eta batzuetan laguntza behar duen egoera konplexuei erantzuteko.
- b) Aintzat hartzen ditu beste ikuspegi batzuk, eta konponbideak bilatzen eta beste aukera batzuk aztertzen saiatzen da ,zailtasunak edo aldaketak daudenean. Gairen batean esperientzia handiagoa dutenengandik edo adituagoak direnengandik ikasten du.
- c) Hobekuntza-jardueretan parte hartzen, du eta taldean lan egiteko gaitasuna du. Partekatu egiten ditu bere esperientziak eta jardunbide egokiak.
- d) Ikasleen garapen pertsonal eta akademikoan inplikatzeko da, eta ikasleek ikaskuntza-prozesu horretan beren autonomia-maila garatzea du helburu.
- e) Ibilbide profesionalean aurrera egin heinean, hobetzen doa.

3. MAILA: Garatua

Hirugarren maila hezkuntza-arloko profesional on bati dagokio. Irakasle honek modu egoki eta eraginkorrean gauzatzen ditu bere zereginak. Bere lanbidea ezagutzen du, eta konprometituta dago. Lankidetzarako jarrera du. Hona hemen garapen-maila honen ezaugarrietako batzuk:

- a) Arazorik gabe egokitzen da askotariko eszenatoki, testuinguru, egoera eta eskaeretara.
- b) Bere jarduna analizatzen du, eta bere lanaren errendimendua optimizatzeko ideia eta irizpide berriak integratzen ditu, ikasleen hezkuntza-arrakasta lortze aldera.
- c) Ikastetxearen funtzionamendua hobetzen laguntzen du.
- d) Lankidetzan jarduten du gainerako irakasleekin. Taldean lan egiten eta balio erantsia ematen daki.
- e) Gai da ikasleak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren protagonista aktibo bilatzeko.

4. MAILA: Aurreratua

Laugarren maila profesional bikain bati dagokio: bere lana maisutasunez egiten du, eta, gainera, ingurukoek bere lana aitortzen dute. Batzuetan, bere jardunak beste batzuk inspiratzen ditu. Hona hemen bere ezaugarrietako batzuk:

- a) Ingurunera egokitzeko gaitasun aitortua du. Sakonki ezagutzen du ingurunea, eta kontu egiten die ingurune horretan gertatzen diren aldaketei. Joera proaktiboa du, eta eraginkorrago lan egiteko sinergiak aurkitzeko gai da.
- b) Jarrera positiboarekin aurreratzen zaie aldaketei. Aldaketarekiko jarrera irekia sustatzen du hezkuntza-erakundea osatzen duten pertsonen artean. Pertsona berritzailea da. Berrikuntzen gaineko gogoeta egiten du, berrikuntza horiei ahalik eta probetxu handiena ateratzeko; ez du, besterik gabe, beste batzuek egiten dutena kopiatzen.
- c) Luze-zabal aitortzen da bere jarduna birmoldatzeko duen gaitasuna. Gainerakoak motibatzen ditu aldaketetara egokitzeko. Konfiantza ematen die berarekin lan egiten dutenei.
- d) Ikasleen ikaskuntza errazten duen bitartekaritzat du bere burua. Ikasle guztien autonomia garatzen du, ikasle bakoitzaren ezaugarri pertsonaletatik abiatuta.
- e) Erreferentea da ikastetxean eta beste eremu batean bere jardunbide egokiengatik.

3.2. Irakasle-profilaren eremu eta dimentsioak: Lau garapen-mailak errubriken bidez deskribatzea

Eremu bakoitzerako lau garapen-maila deskribatzen dira, errubriken bidez. Ondoren, ebidentzia-iturriak azaltzen dira, zeinak erabilgarriak izango baitira irakasleak dagokion mailan zer-nolako egoera duen jakiteko.

1. JAKITE EREMUA

- a) Araudiaren, ikasgaiaren eta curriculumaren gaineko ezagutza
- b) Ezagutza pedagogikoa
- c) Eskolaren ingurunearen/testuinguruaren gaineko ezagutza
- d) Eskolaren antolaketaren eta curriculumari, didaktikari eta antolaketa eta funtzionamenduari buruzko dokumentuen gaineko ezagutza
- e) Ikasleen gaineko ezagutzak
- f) Hizkuntza-konpetentzia
- g) Konpetentzia digitala

2. EGITE EREMUA – DIMENTSIOA: PLANIFIKATZEA

- a) Ikasleen premien eta -itxaropen kolektibo eta indibidualen diagnostikoa egitea
- b) Helburuak ezartzea eta hezkuntzako esku-hartzea eta ikaskuntza-egoerak diseinatzea
- c) Aniztasunari emango zaion erantzuna eta ikaskuntzaren aurrerabidea planifikatzea
- d) Prestakuntza-ebaluazioa egiteko eta irakaskuntza-plangintza eta -praktika doitzeko aurreikuspenak egitea

3. EGITE EREMUA – DIMENTSIOA: IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA PROZESUA KUDEATZEA

- a) Bizikidetzeta eta ikaskuntza-giro ona kudeatzea
- b) Ikaskuntza-egoerak kudeatzea. Ikasgelaren antolaketa. Estrategia metodologikoak. Baliabide didaktikoak. IKTen erabilera. Rolen banaketa. Ikasgelako elkarreraginak. Jarraipena eta feedbacka
- c) Ikaskuntzaren aurrerabidea kudeatzea. Ebaluazioa
- d) Inklusioa
- e) Ikasleak beren ikaskuntzetan inplikatzeko
- f) Tutoretza eta orientazio akademiko eta pertsonala. Familiekin koordinatzea. Balioetan oinarrituta hezte

4. EGITE EREMUA – DIMENTSIOA: HEZKUNTZA-KOMUNITATEAN ELKARRERAGINEAN ARITZEA ETA PARTE HARTZEA

- a) Ikasleekin elkarreraginean aritzea
- b) Irakasleekin elkarreraginean aritzea. Talde-lana egitea
- c) Familiekin elkarreraginean aritzea: familiak informatzea eta inplikatzeko
- d) Ingurunearekin elkarreraginean aritzea
- e) Beste ikastetxe edo erakunde batzuekin elkarreraginean aritzea
- f) Ikastetxearen kudeaketan parte-hartzea eta lankidetzan aritzea

5. IZATE EREMUA – DIMENTSIOA: IRAKASLE IZATEA

- a) Tasun pertsonalak: tasun emozionalak, humanoak, etikoak eta profesionalak
- b) Hezkuntzaren funtzio soziala norberaren gain hartzea.
- c) Hezkuntza-emaitzen gaineko erantzukizuna.
- d) Etengabeko ebaluazioarekin konprometitzea. Berrikuntza eta esperimentazioa.
- e) Norberaren lana kudeatzea eta hobekuntza-erabakiak hartzea.

a) Araudiaren, ikasgaiaren eta curriculumaren gaineko ezagutza

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Ez ditu ezagutzen indarreko hezkuntza-araudia eta curriculuma.</p> <p>Ez du ezagutza zientifiko nahikorik, irakasten duen arloan edo ikasgaiaren. Akats kontzeptual handiak ditu.</p> <p>Ez ditu ikasleen eskubideak eta betebeharrak bermatzeko gako diren esku-hartze protokoloak ezagutzen (jazarpenaren aurreko protokoloa, babesgabetasun-egoeren aurreko protokoloa...).</p>	<p>Hezkuntza-araudiari eta curriculumari buruzko oinarrizko ezagutza dauka.</p> <p>Ez du ezagutza zientifiko nahikorik, irakasten duen eremuko, arloko, ikasgaiko, moduluko... edukiari buruz eta edukien arteko edota edukien barneko harremanari buruz.</p> <p>Ikasleak babesteko protokoloen gaineko ezagutza mugatua du.</p>	<p>Indarreko hezkuntza-araudia ezagutzen du, eta barneratuta ditu curriculumeko edukiak.</p> <p>Ezagutza zientifiko sakona eta eguneratua du irakasten duen eremuko, arloko, ikasgaiko, moduluko... edukiari eta edukien arteko eta edukien barneko harremanari buruz.</p> <p>Ezagutzen ditu ikasleen eskubideak urratzeko arriskuaren aurrean jarduteko orientazioak ematen dituzten protokoloak.</p>	<p>Gai da araudia eta curriculum ofiziala hobetzeko proposamenak egiteko. Curriculum-programak garatzeko laguntza eskatzen zaio ikastetxe barruan edo kanpoan.</p> <p>Sakonki ezagutzen ditu ikasleak babesteko protokoloak eta gai da protokolo horiek hobetzeko proposamenak egiteko.</p>

b) Ezagutza pedagogikoa

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Ikasle gisa izandako esperientzietan edo bere intuizioan oinarritutako ezagutza pedagogikoa du. Ez du interesik pedagogian eta ez zaio iruditzen irakaskuntza-jardunerako garrantzitsua denik.</p> <p>Ez ditu ezagutzen ikasleei helburuak betetzen eta curriculumeko konpetentziak, zeharkako konpetentziak eta prestakuntza-ebaluazioko estrategiak garatzen laguntzen dieten baliabide metodologiko eraginkorrak</p> <p>Ez da ohartzen zeinen garrantzitsua den ikasgelako giroa kudeatzea ikaskuntzarako ingurune aproposa sortzeko.</p>	<p>Proposatzen duen planteamendu pedagogikoa bat dator indarreko araudian egiten den irakaskuntza-ikaskuntza prozeduraren planteamenduarekin eta ikasgelaren kudeaketarekin.</p> <p>Konpetentziak garatzeko eta aniztasunari erantzuteko metodologia eta baliabide didaktiko eraginkorrak ezagutzen ditu, besteak beste: garapen gertuko eremuko detekzioa, lankidetza, arazo-egoeren planteamendua eta ebaluazio prestatzailea eta batutzailea egiteko zenbait iturri.</p> <p>Ikasgelako giroa kudeatzeko estrategiak ezagutzen ditu.</p>	<p>Sakonki ezagutzen ditu ikasleen ikaskuntza-helburuak betetzeko estrategia pedagogiko berritzaile eta eraginkorrak.</p> <p>Sakonki ezagutzen ditu helburuak betetzen eta konpetentzia akademikoak eta zeharkako konpetentziak garatzen laguntzen duten metodologia eta jarduketa didaktiko ugari, eta gai da horiek guztiak berrikusi eta eguneratzeko, eguneroko jardunean bizi duenarekin erkatuta.</p> <p>Ikasgela eta bizikidetza positiboa kudeatzeko estrategia berritzaileen gaineko ezagutza du.</p>	<p>Etengabe eguneratzen du bere prestakuntza pedagogikoa.</p> <p>Erreferentetzat dute ikastetxean eta ikastetxetik kanpo, ematen duen ikasgaiaren/arloaren gaineko alderdi pedagogiko, metodologiko eta didaktikoak ezagutzen dituelako.</p> <p>Aitortu eta eskatu egiten zaizkio ikasgela kudeatzeko eta bizikidetza positiborako jardunbide egokiak.</p>

c) Eskolaren ingurunearen/testuinguruaren gaineko ezagutza

<i>1. maila: Oinarrizkoa</i>	<i>2. maila: Garatze bidean</i>	<i>3. maila: Garatua</i>	<i>4. maila: Aurreratua</i>
Ez ditu ezagutzen edo ez die erreparatzen eskolaren ingurunearen/testuinguruaren ezaugarriak (familiak, eskola-kultura, ingurune fisikoa eta eremuko baliabideak).	Ezagutzen ditu eskolaren ingurunea/testuingurua, familiak, eskola-kultura, ingurune fisikoa eta eremuko baliabideak.	Xeheki ezagutzen ditu eskolaren ingurunearen/testuinguruaren ezaugarriak (familiak, eskola-kultura, ingurune fisikoa eta eremu horretako baliabideak), eta irakaskuntza-jardunean erabiltzen du ezagutza hori.	Aktiboki parte hartzen du eskola-ingurunean, eta etekina ateratzen die ingurune horren ezaugarriak eta baliabideei, ikasleak eta familiak bertan integratzeko, ikaskuntza motibatuzko eta kanpo- zein barne-eragileak inplikatuzko —eta halaxe aintzatesten diote—.

d) Eskolaren antolaketaren eta curriculumari, didaktikari eta antolaketa eta funtzionamenduari buruzko dokumentuen gaineko ezagutza

<i>1. maila: Oinarrizkoa</i>	<i>2. maila: Garatze bidean</i>	<i>3. maila: Garatua</i>	<i>4. maila: Aurreratua</i>
Ez ditu behar beste ezagutzen ikastetxeko curriculumari, didaktikari (ICP, programazioak, AJA, etab.) eta antolaketari buruzko dokumentuak, edo ez ditu bere jardunaren erreferentziatzat hartzen.	Ezagutzen ditu ikastetxeko curriculumari, didaktikari eta antolaketari buruzko dokumentuak (HP, ICP, programazioak, AJA, urteko plana, memoria) eta, bereziki, irakasten dituen eremu / arlo / ikasgaiei dagozkienak. Denak ditu bere jardunaren erreferentetzat.	Xehetasunez ezagutzen ditu ikastetxearen antolaketari buruzko alderdiak eta gaitasuna edo ideiak ditu antolaketa hori egiten laguntzeko. Dokumentu horien arteko koherentzia, jarraitutasunean eta konexioan laguntzen du. Dokumentu horietan ezarritakoaren arabera jarduten du eta gainerako irakasleek dokumentuok ezagutzea sustatzen du.	Sakonki ezagutzen du bere ikastetxearen antolaketa eta, oro har, gainerako ikastetxeena. Horri esker, ekarpenak edo hobekuntza-proposamenak egiten ditu bere ikastetxearen funtzionamendua eta ikastetxeko curriculumari eta didaktikari buruzko dokumentuen edukia hobetzeko. Ikastetxearen eta beste ikastetxe batzuen erreferente da jardunbide egokiak partekatzen dituelako eta aipatutako dokumentuen edukia prestatzeko ereduak eta gomendioak ematen dituelako.

e) Ikasleen gaineko ezagutzak

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Ez ditu behar beste ezagutzen ikasleen garapen-ezaugarriak eta ezaugarri pertsonalak, eta ez du tresna egokirik ikasleen aurretiazko ezagutzak, oinarrizko konpetentzien garapen-maila eta ikaskuntza-estiloak hautemateko.</p>	<p>Ezagutzen ditu dagokion etapako ikasleen eboluzioaren faseei berezkoak zaizkien ezaugarriak.</p> <p>Ezagutzen ditu ikasleen aurretiazko ezagutzak, ikaskuntza-estiloa eta aniztasuna hautematea ahalbidetzen diote tresnak, baliabideak eta estrategiak.</p>	<p>Sakonki ezagutzen ditu bere etapako eta aurreko eta osteko etapetako ikasleen eboluzioaren faseak.</p> <p>Ezagutzen ditu aurreko eta ondoko mailetako irakasleekin koordinatzeko mekanismoak.</p> <p>Badaki zer egin ikasleak motibatze eta beren ikaskuntza-prozesuan inplikatzeko, ikaskuntzak esanguratsu egiteko eta ikasle guztiek ikasteko.</p>	<p>Ezagutza sakona eta eguneratua da ikasleen eboluzio-faseei buruz, baita ikasleen garapen kognitiboan zailtasunak sortzen dituzten kausei buruz ere.</p> <p>Eskola-komunitateak aditua dela aitortzen du.</p> <p>Bere ezagutzak ikastetxe barruko eta kanpoko beste profesional batzuekin partekatzen ditu.</p>

f) Hizkuntza-konpetentzia

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Bere idatzietan egitura eta koherentzia falta dago. Akats ortografikoak egiten ditu.</p> <p>Zailtasuna du bere ezagutzak, iritziak eta ideiak argi adierazteko.</p>	<p>Modu ulergarrian adierazten ditu transmititu nahi dituen ideiak.</p> <p>Horretarako, bere jardun profesionaleko egoera eta testuinguruetarako egokiak diren estiloa, kodea, hizkuntza-erregistroa eta formatua erabiltzen ditu.</p> <p>Bere diskurtsoa koherentea da, entzuten daki eta jario ona du bere burua adierazten duenean.</p>	<p>Gai da bere burua modu eraginkorrean adierazteko eta transmititu nahi dituen ideien berri emateko. Gainera, egiaztatu egiten du hartzaileek mezua ulertu dutela.</p> <p>Modu egokian erabiltzen ditu egoeraren arabera egokiak diren komunikazio-kode eta -kanalak.</p>	<p>Komunikazio-prozesua menderatzen du, eta baliabide linguistiko eta ez-linguistikoak erabiltzen ditu azaltzen ari dena hobeto ulertarazteko eta azalpena atsegingarriagoa egiteko, euskarri ezberdinen bidez.</p> <p>Erreferentea da ikastetxe barruan eta kanpoan, eta partekatu egiten ditu bere azalpenekiko interesa eta gaiarekiko motibazioa pizteko erabiltzen dituen estrategiak.</p>

g) Konpetentzia digitala

1. maila: Oinarrikoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Gai da nabigatzeko eta informazio digitala bilatzeko eta iragazteko.</p> <p>Ezagutza egokia du ingurune digitalak komunikaziorako erabiltzeko ikasleekin, beste irakasle batzuekin eta hezkuntza-komunitatearekin: posta elektronikoa, komunikazio-taldeak, bideodeiak, etab.</p> <p>Gai da ikasleen ikaskuntza-premiei egokitutako material hezigarriak sortu eta partekatzeko; besteak beste, inkestak eta formularioak.</p>	<p>Gai da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan erabiltzeko bereziki egokiak diren askotariko informazio-iturri dinamikoak aurkitzeko.</p> <p>Gai da ingurune birtualetan formatu ezberdinekin aurki daitezkeen hezkuntza-eduki eta -baliabideak partekatzeko.</p> <p>Ezagutzen ditu bere esperientziak partekatzeko eta komunitate birtualetan eta/edo sare sozialetan parte hartzeko komunikazio-estrategiak.</p>	<p>Jarrera kritikoa du formatu digitaleko edukiak erabiltzeari eta sortzeari dagokionez, eta gai da ikasleen artean baliabide digitalen kontsumo etiko eta segurua sustatzeko.</p> <p>Sareko lankidetzeta-proiektuetan aktiboki parte hartzea sustatzen du, eta lagundu egiten die ikasleei beren nortasun digitala kudeatzen ikasten.</p>	<p>Konpetentzia digitalari buruzko ezagutzak partekatzen ditu ikastetxe barruko eta kanpoko beste profesional batzuekin.</p>

Ebidentzia-iturriak



- Elkarrizketa irakaslearekin. Hauei buruz galdetu behar zaio: ikastetxearen funtzionamendua, ikasgelan erabiltzen dituen metodologia eta tresnak, hasierako ebaluazioa egiteko erabiltzen dituen prozedura eta tresnak...
- Elkarrizketa ikasleekin
- Ikasleek egindako lanak
- Ikasgelako behaketak
- Elkarrizketa saileko buruarekin, ikasketa-buruarekin...
- Programazio didaktikoaren eta unitate didaktikoren baten analisisia

a) Ikasleen hezkuntza-premien eta -itxaropen kolektibo eta indibidualen diagnostikoa egitea

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren planifikazioan ez dago ikasleen aurretiazko ezagutzak, premiak eta itxaropenak hautemateko faserik, edo asmoen adierazpen orokor bat dago.</p>	<p>Plangintzan jasota daude ikasleen aurretiazko ezagutzak, premiak eta itxaropenak hautemateko prozedurak. Diagnostikoa egiteko erabiliko diren prozedura edo estrategiak aipatzen ditu.</p> <p>Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen egoera pertsonala ere hartzen du aintzat.</p>	<p>Xeheki planifikatuta dauka ikasleen diagnostikoa egiteko prozedura (ezagutzak, kompetentzien garapen-maila, premiak eta aurreikuspenak) bai ikasgela osoari begira, bai ikasle bakoitzari begira.</p> <p>Hasierako diagnostikoa egiteko epe, prozedura eta estrategia zehatzak ditu aurreikusita.</p> <p>Beste irakasle batzuekin koordinatzen da hasierako diagnostikoaren emaitzak aztertu eta lan-erabakiak hartzeko.</p>	<p>Ikasle bakoitzaren egoeraren diagnostikoa egiteko prozedura hezigarriak, original eta eraginkorrak erabili eta partekatzen ditu.</p> <p>Erreferentea da ikastetxe barruko eta kanpoko profesionalentzat.</p>

b) Helburuak ezartzea eta hezkuntzako esku-hartzea eta ikaskuntza-egoerak diseinatzea

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Ez du hasierako diagnostikoa aintzat hartzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua planifikatzeko.</p> <p>Programazioan oinarrizko elementu batzuk falta dira (konpetentziak, helburuak, metodologia, baliabideak, denborak, ebaluazio-irizpideak) edo ez dago horien arteko koherentziarik.</p> <p>Curriculumeko helburuekin bat ez datozen helburu orokorrak planteatzen ditu.</p> <p>Helburuak ebaluatzeko erabili ezin diren irizpide eta adierazleak planteatzen ditu.</p> <p>Irakaslean zentratutako metodologiak eta proposamen didaktikoak planifikatzen ditu, erronkarik, arazo-egoerarik... proposatu gabe.</p>	<p>Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren planifikazioa testuinguru sozialaren eta ikasle taldearen premien arabera doitzen du.</p> <p>Espezialistei laguntza eskatzeko aukera aurreikusten du; bai zailtasunak dituzten ikasleei laguntzeko, bai curriculumak aberasteko beharra dutenei laguntzeko.</p> <p>Programazioan oinarrizko elementu guztiak daude, eta koherentzia dago elementu guztien artean.</p> <p>Ez-linguistikoak diren eremu / arlo / ikasgai / modulu eta abarretan ere komunikazio linguistikoari dagokion helbururen bat dauka.</p> <p>Planteatutako helburuak zuzenak dira, eta modu egokian egiten diote erreferentzia curriculumari.</p> <p>Ebaluazio-irizpide eta -adierazleak argi eta garbi dira baliagarriak proposatutako ikaskuntza-helburuen betetze-maila neurtzeko.</p> <p>Ikaslean zentratutako metodologia bat planifikatzen du. Arazo-egoerak planteatzen ditu.</p>	<p>Proposamen didaktikoak taldearen eta ikasle bakoitzaren hasierako diagnostikoaren emaitzen arabera planifikatu eta doitzen ditu.</p> <p>Beste profesional batzuekin koordinatutako esku-hartzeak planifikatzen ditu.</p> <p>Eremu / arlo / ikasgai / modulu eta abar guztietan daude zehaztuta zeharkako konpetentzia guztiei lotutako helburuak, bereziki komunikazio linguistikoarekin eta STEAM konpetentziekin zerikusia dutenak.</p> <p>Ebaluazio-prozedura aktibo, dinamiko eta motibagarriak planifikatzen ditu proposatutako irizpide eta adierazleak neurtzeko: autoebaluazioa, koebaluazioa, portfolioak, aurkezpenak...</p> <p>Programazioaren ardatza metodologia aktiboak eta askotariko arazo-egoerak dira. Ikasleentzat motibagarriak izatea da helburua, eta oinarrizko eta zeharkako konpetentziak eskuratzeko prozesua bideratzeko baliagarriak izatea, horretarako metodologia malguak eta lankidetzako ikaskuntza sustatuta.</p>	<p>Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain... Eskolak maila berean eta beste arlo batzuetan ematen dituzten irakasleekin koordinatuta eraten du programa, proposamen didaktikoak diziplina anitzetatik egiteko.</p> <p>Diziplina anitzeko proposamenen ebaluazio-prozedurak koordinatzen ditu.</p> <p>Erreferentea da bere eskola-komunitatearentzat eta beste ikastetxe eta erakunde batzuentzat. Curriculum ofizialaren prestakuntzan eta garapenean laguntzen du.</p>

c) Aniztasunari emango zaion erantzuna eta ikaskuntzaren aurrerabidea planifikatzea

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Programazioak ez ditu ikasleen helburuen betetze-maila ezberdinak islatzen. Curriculum-egokitzapenen edo ikaskuntza-erritmo eta -estilo ezberdinen erreferentziak falta dira.</p> <p>Ez dago tarteko ebaluaziorik, ez ikaskuntzen aurrerabideari edo aurkitutako zailtasunei buruzko oharren, prozeduren eta ebidentzia-iturrien erregistrorik.</p>	<p>Plangintzan aurreikusten da ikasle batzuek eritmo ezberdinean egingo dutela aurrera, eta, horregatik, beharbada, egokitzapenak egin beharko zaizkiela denbora, materialetan, metodologian eta are curriculumean.</p> <p>Laguntzako edo aholkularitzako irakasleekin (pedagogia terapeutikoa, aholkularia, orientatzailea...) lankidetzan aritza eta zailtasunak edo ikaskuntza-eritmo ezberdinak dituzten ikasleentzako urteko edo hiruhilekoko esku-hartzeak aurreikusten ditu.</p> <p>Tarteko ebaluazioak eta ikaskuntzen aurrerabideari edo aurkitutako zailtasunei buruzko oharren, prozeduren eta ebidentzia-iturrien erregistroa planteatzen dira.</p>	<p>Programazioak askotariko ikaskuntza-helburuak plantatzen ditu aniztasunari erantzuteko. Ikasle guztiek ikaskuntzaren aurrerabidea lortzeko baliagarriak diren estrategiak, heziketa-ibilbideak eta baliabide inklusiboak aurreikusten ditu (ikasgela arruntean irakasleak edo hezkuntzako langileak egotea, maila ezberdinen arteko laguntza-taldeak, etab.).</p> <p>Tarteko ebaluazioak egiteko une ugari proposatzen dira, eta beste irakasle batzuekin erkatzen dira, beharrezkoa bada, sekuentzia didaktikoa berrantolatzen.</p>	<p>Programazioak indartze-neurriak aurreikusten ditu, zailtasunak dituzten ikasleek beren helburuak bete ditzaten eta curriculumeko helburuetatik haratago doazen helburuak dituztenek gehiago sakondu dezaten.</p> <p>Lankidetzak-estategiak aurreikusten dira gaitasunak garatuen dituzten ikasleek zailtasunak dituzten ikasleen ikaskuntza-prozesuan lagundu dezaten.</p> <p>Tarteko ebaluazioa egiteko une ugari aurreikusten dira zehaztasunez neurtzeko ikasle bakoitzak planteatutako helburuekiko egin duen aurrerabidea. Emaitzak beste irakasle batzuekin eta ikasle bakoitzarekin aztertu eta analitzen ditu. Zailtasun indibidualak identifikatzen ditu eta, beharrezkoa bada, sekuentzia didaktikoa ikasle bakoitzaren arabera berrantolatzen du.</p> <p>Balio erantsi handia duten antolaketa-estategia original eta sortzaileak erabiltzen ditu.</p>

d) Prestakuntza-ebaluazioa egiteko eta irakaskuntza-plangintza eta -praktika doitzeko aurreikuspenak egitea

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Ez da aurreikusten unitate didaktiko bakoitzaren hasieran ikasleen hasierako ebaluazioa egiteko unerik.</p> <p>Ikasleen ebaluazioa eduki deklaratioetan baino ez da zentratzen.</p> <p>Ikasleen ebaluazioan eragina izango duten lanen, proben eta ariketen zuzenketak kalifikazio kualitatibo edo kuantitatiboak du, baina ez du adierazten zein diren egindako akatsak edo zergatik jarri den kalifikazio hori.</p> <p>Irakaskuntza-plangintzan ez da aipatzen edo aurreikusten programazioaren beraren ebaluazioa egiteko unerik.</p>	<p>Ikasleen hasierako ebaluazioa egitea aurreikusita dago unitate didaktiko bakoitzaren hasieran, aurretiazko ezagutzak eta ikaskuntza berriak egiteko balizko zailtasunak identifikatze aldera.</p> <p>Ikasleen ebaluazioa batez ere eduki deklaratioetan oinarritzen da, prozedurei eta jarrerei buruzko informazioa ere jasotzen duen arren.</p> <p>Ebaluazioa oharren edo probetako kalifikazioen erregistroen metaketa hutsa da.</p> <p>Programazioak ebaluatzeak uneak aurreikusten dira, baina ikasleen kalifikazioak dituzte ardatz eta ez da beste ebidentzia- edo informazio-iturririk planteatzen.</p>	<p>Eduki deklaratioez gain, trebeziak edo prozedurak eta jarrerak eta zeharkako konpetentziak ebaluatzea aurreikusten du.</p> <p>Informazioa askotariko ebidentzia-iturrien bidez jasotzea aurreikusten du (behaketa, ahozko eta idatzizko proben emaitzak, banakako lanak, taldeko lanak, aurkezpenak, ikerketa, etab.).</p> <p>Ebaluazio indibiduala eta garapen hurbileko eremuarekin bat datozen erroka pertsonalizatuak transmititzeko uneak aurreikusten ditu.</p> <p>Programazioaren ebaluazioak ikasleen kalifikazioez gain, baliabideen erabilerean eta ikasgelan erabilitako metodologiaren eraginkortasunaren analisia aurreikusten ditu.</p>	<p>Xehe-xehe deskribatzen du hasierako ebaluazioa, etengabeko ebaluazioa, askotariko ebidentzia-iturrien erabilera, eduki mota ezberdinei egokitutako ebaluazio-teknikak eta banakako ebaluazioa egiteko estrategiak. Ikasleen emaitzak eta emaitza horiek lortzeko prozesua ebaluatzen dira.</p> <p>Autoebaluaziorako, berdinen arteko binakako ebaluaziorako, taldeko ebaluaziorako... proposamenak jasotzen ditu. Ebaluazio-prozesu ororen ostean ikasle bakoitzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren aurrerabidearekin jarraitzen lagunduko duten orientazioak egingo direla ezartzen du.</p> <p>Zikloko edo saileko hainbat saio erreserbatzen ditu programazioak ebaluatzeako.</p> <p>Talde edo klase bakoitzaren adierazleez gain, aintzat hartzen ditu beste ebidentzia-iturri batzuk: ebaluazio diagnostikoa, kanpoko probak (PISA, TIMMS, PIRLS...)</p> <p>Irakasleak ekarpen esanguratsuak egiten ditu ikastetxeko planifikazio- eta ebaluazio-tresnetan.</p>

Ebidentzia-iturriak



- Programazioak
- Zikloko / etapako / saileko bileren aktak
- Unitate didaktikoak
- Irakaslearen koadernoak
- Erregistro-orriak

a) Bizikidetzeta eta ikaskuntza-giro ona kudeatzea

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Zailtasunak ditu bizikidetzeta positiboa ahalbidetzeko eta ikasgelan ikaskuntza-giro egokia sortzeko estrategiak garatzeko.</p> <p>Bizikidetzeta- eta ikaskuntza-giro egokia zailtzen duten egoerak daudenean, ez du erantzuten edo bere erantzunak ez ditu emaitza egokiak ematen.</p> <p>Lehentasuna ematen die diziplinazko neurriei, eta ez ditu aztertzen, ikasleen adinera, ezaugarrietara eta gertatutakoaren larritasunera egokitutako beste neurri batzuk, gatazkak kudeatzen dituenean, ikasleek motibazio gutxi erakusten dutenean eta jarrera eta/edo jokabide desegokiak eta abar dituztenean. Ez ditu bere erabakiak justifikatzen.</p> <p>Gutxi aritzen da lankidetzan edo neurri txikian hartzen ditu aintzat irakasleen taldeak edo ikastetxeko kide anitzeko organoren batek ikasgelako bizikidetzeta kudeatzeari dagokionez hartutako erabakiak. Ez da eskolako giroa hobetzera bideratutako ekintza eta programetan inplikatzeko.</p>	<p>Ikaskuntza-giro egokia mantentzen du, eta bizikidetzeta positiborako estrategiak garatzen ditu.</p> <p>Gatazkak edo bizikidetzeta-arazoak prozedura ezberdinen bidez kudeatzen ditu, eta ez ditu bakarrik diziplinazko neurriak erabiltzen.</p> <p>Gatazka-egoerak ikaskuntzarako baliatzen ditu, jokabide desegokiak zuzentzeko erabiltzen baititu.</p> <p>Aintzat hartzen ditu irakasleen taldeak klasearen edo taldearen bizikidetzaren kudeaketa egokirako hartutako erabakiak, proposamenak edo irizpideak.</p> <p>Inplikatu egiten da bizikidetzaren aldeko jardura edo programetan.</p>	<p>Ikasgelan lan egiteko giro ona lortzen du, eta horrek errespetuan, lankidetzan eta lankidetzako ikaskuntzan oinarritutako harremanak errazten ditu.</p> <p>Bizikidetzeta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren elementu garrantzitsu bat da, eta prozesu horren ebaluazioan ere garrantzia du. Ikasleak beren hobekuntza propioan inplikatzeko lortzen du.</p> <p>Bizikidetzeta-arazoei ikaskuntzarako eta konpetentziak garatzeko aukera gisa heltzen die.</p> <p>Ikastetxeko bizikidetzeta arautzen duten dokumentuen prestaketan parte hartzen du eta hobekuntza-proposamenak egiten ditu.</p> <p>Ikasgelan eta ikastetxean estrategiak sustatzen ditu bizikidetzeta positiboa eta ikaskuntza-giroa sustatzeko.</p>	<p>Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain... Erreferentea da ikastetxean gatazkak eta bizikidetzeta-arazoak modu positibo eta hezigarrian ebazten dituelako.</p> <p>Ikastetxeko beste profesional batzuekin lankidetzan aritzen da: aholkuak eman, eta berak darabiltzan jardunbide egokiak berri ematen die.</p> <p>Beste ikastetxe eta erakunde batzuekin lankidetzan aritzen da: aholkuak eman, eta berak darabiltzan jardunbide egokiak berri ematen die.</p>

b) Ikaskuntza-egoerak kudeatzea. Ikasgelaren antolaketa. Estrategia metodologikoak. Baliabide didaktikoak eta IKTen erabilera. Rolen banaketa. Ikasgelako elkarreraginak. Jarraipena eta feedbacka

1. maila: Oinarrizkoa

2. maila: Garatze bidean

3. maila: Garatua

4. maila: Aurreratua

Planifikatutakora egokitzea

<p>Eskola ez da aurretiaz planifikatzen edo eskola ez dator bat programan ezarritakoarekin.</p>	<p>Eskola bat dator aurretiaz programan ezarritakoarekin. Jarduerak ordena logikoan planteatzen dira eta ikaskuntza-helburuak lortzera daude bideratuta.</p> <p>Ikasleei proposatutako jarduera guztiek dute helburu bat. Badaki identifikatzen zergatik eta zertarako planteatzen dituen jarduerak.</p>	<p>Eskola bat dator aurretiaz programan ezarritakoarekin, baina malgutasuna du, ikaskuntzak esanguratsuagoak egingo dituzten eta motibazioa handituko duten egoerak aprobetxatzeko.</p> <p>Ondo antolatutako jarduerak eraginkortasun handiz betetzen dituzte planteatutako helburuak, eta ikaskuntzekiko motibazioa eta kompetentzien eta autonomiaren garapena sustatzen dute.</p>	<p>Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain... Eskolaren (edo ikaskuntza-egoeraren) abiapuntua planteamendu original bat da, balio erantsia duena ikaskuntza-helburuak betetzeko eraginkorra delako, ikasleen motibazioa handitzen duelako, inklusioa delako eta erantzun egiten dielako aniztasunari, ikasgelako giroari eta baliabideen erabilerrari.</p>
---	--	--	--

Helburuei buruzko informazioa

<p>Ikasleei eta/edo familiei ikaskuntza-helburuei eta ebaluazio-irizpideei buruz ematen dien informazioa ez da osoa.</p>	<p>Unitate didaktikoaren hasieran, lortu nahi diren helburuen eta ebaluazio-irizpideen berri ematen du.</p>	<p>Unitate didaktikoaren hasieran, lortu nahi diren helburuen, edukien eta ebaluazio-irizpideen berri ematen du, eta ikasleek horien inguruan dituzten interesak eta proposamenak jasotzen ditu.</p>	<p>Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain... Aintzat hartzen ditu ikasleen interes eta proposamenak eta protagonismo handia ematen die.</p>
--	---	--	--

Eskola-saioaren egitura:

<p>Jarduerak inolako ordenarik gabe egiten dira, eta ez datoz bat ez eskuragarri dagoen denborarekin, ez ikaskuntza-helburuekin.</p>	<p>Saioak egitura planifikatua eta logikoa du. Argi ikusten dira hasiera, garapena eta amaiera.</p>	<p>Saioaren egiturari esker, ikasleei errazagoa egiten zaie saioaren garapenez konturatzea.</p> <p>Saioaren hasieran, egun horretan egingo dutena eta zein helburu duten jakinarazten zaie.</p> <p>Loturak ezartzen dira aurreko ikaskuntzekin.</p> <p>Amaieran, egindakoaren eta ikasitakoaren gaineko gogoeta egiten da.</p>	<p>Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain... Ikasleak saioaren egitura ezagutzen du, eta autonomiaz funtzionatzen du. Ikasleak motibatzea lortzen da, baita proposatutako ikaskuntza edo erronken aurrean interesa piztea ere. Agerikoak dira aurreko ikaskuntzekiko eta beste arlo edo ikasgai batzuekiko loturak. Balio erantsia ematen duen planteamendu originala erabiltzen da.</p>
--	---	--	---

Ikasgelaren (edo beste ikaskuntza-testuinguru baten) antolaketa:

<p>Ez da aurretiaz aurreikusten nola antolatuko diren ikasleak ikasgelan. Irakaslea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren protagonistatzat duen antolakuntza-eredua erabiltzen du nagusiki.</p>	<p>Ikasgelaren antolaketak erraztu egiten du proposatutako ikaskuntza-jarduerak egitea.</p> <p>Ikasleak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren erdigunean jartzen dituen eta parte-hartzea eta komunikazioa errazten duen eredu bat erabiltzen du.</p>	<p>Ikasgelaren antolaketari esker, hobeto garatzen dira proposatutako ikaskuntza-jarduerak eta kompetentziak. Lankidetzako ikaskuntza, berdinen arteko ikaskuntza, parte-hartzea eta komunikazioa sustatzen ditu.</p>	<p>Ikasgela antolatzeko modua lagungarria da kompetentziak garatzeko eta ikasle guztiei arrakasta lortzeko bide emateko.</p> <p>Aintzat hartzen du ikasleen iritzia.</p> <p>Balio erantsia ematen duen planteamendu originala erabiltzen da. Irakaslea da esparru honetako erreferentea eta bere jardunbide egokiak partekatzen ditu.</p>
---	---	---	---

Baliabideak:

<p>Ez da aurreikusten zein baliabide didaktiko erabiliko den edo erabiltzen diren baliabideak ez dira behar bezain erabilgarriak helburu didaktikoak betetzeko.</p>	<p>Proposatutako jarduerak egitea, landutako kontzeptuak ulertzea eta helburuak betetzea errazten duten baliabide didaktikoak erabiltzen dira.</p>	<p>Baliabideek argi eta garbi laguntzen dute unitate didaktikoko helburuak betetzen eta kompetentziak garatzea, baita ikasleen autonomia sustatzen ere.</p>	<p>Erabilitako baliabideak askotarikoak, motibagarriak, erabilgarriak eta berritzaileak dira, eta balio handia dute helburu didaktikoak betetzeko eta kompetentziak garatzeko. Ikasleak aktibo mantentzen dituen baliabideak erabiltzen ditu.</p>
---	--	---	---

IKTen erabilera.

<p>Ez dira erabiltzen, edo testuliburua erakusteko edo edukietara sartzeko bakarrik erabiltzen dira.</p>	<p>IKT baliabideak askotariko edukietara sartzeko erabiltzen ditu: balio hezigarria duten testuak, bideoak, mapak, audioak, irudiak, etab.</p> <p>Ikasleek lantzean behin erabiltzen dituzte.</p>	<p>Askotariko IKT baliabideak erabiltzen dira, sistematikoki, eta horrek kompetentzia digitala garatzen laguntzen du.</p>	<p>IKTen erabilera irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan dago integratuta.</p> <p>Erraztu egiten du ikasleen autonomia, aniztasunari erantzutea eta parte-hartzea. Kalitatezko baliabide digitalak sortu eta partekatzen dira.</p>
--	---	---	--

Metodologia:

<p>Erabilitako metodologia ez dator bat ikasleen ezaugarri eta premiekin. Ez ditu ikaskuntza-erritmo ezberdinak artatzen, eta ez du motibazioa pizten. Ez du konpetentzien garapena sustatzen.</p>	<p>Konpetentzien garapena sustatzen du. Ikasleen ezaugarrietara, premietara eta ikaskuntza-erritmo ezberdinetara egokitzen da. Ikaskuntzarekiko motibazioa sustatzen du, eta ikaskuntzak ikasleentzat esanguratsuagoak eta funtzionalagoak izatea errazten du.</p>	<p>Bestalde, 2. mailan jasotakoaz gain... Ikasleengan autonomia, autoebaluazioa eta beren ikaskuntza-prozesuaren gaineko kontrola sustatzen du.</p>	<p>Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain... Nabarmendu egiten da balio erantsia duten planteamendu metodologiko originalak egiten dituelako. Etengabe bilatzen ditu ikaskuntza-helburuak betetzeko eta ikasleen motibazioa lortzeko gero eta efikazagoak eta efizienteagoak diren estrategiak. Bere jardunbide egokiak partekatzen ditu. Erreferentea da ikastetxe barruan eta kanpoan.</p>
--	--	---	---

Jardueren tipologia:

<p>Errepikapenean edo aplikazioan oinarritutako jarduerak proposatzen ditu, ikasleen sorkuntzari eta autonomiari tokirik utzi gabe. Jarduera horiek ikasle gehienei ez diete motibazioa pizten. Ez ditu behar beste jarduera mota planteatzen gaitasun kognitibo ezberdinak martxan jarri eta ikasleen ikasteko modu ezberdinekin bat etor daitezten. Jarduera gehienak bakarka egiten dituzte ikasleek.</p>	<p>Ikasleentzat motibagarriak diren askotariko jarduerak planteatzen ditu. Estrategia intelektual ezberdinen erabilera sustatzen dute eta ikasteko modu ezberdinei erantzuten diete. Abstrakzio- eta zailtasun-ordena progresiboa planteatzen du. Jarduerak, lankidetzak, komunikazioa eta konpetentzien garapena sustatzen ditu. Taldean lan egiteko proposamenak egiten ditu aldizka.</p>	<p>Bestalde, 2. mailan jasotakoaz gain... Ikasleen aniztasunarekin bat datozen askotariko proposamenak egiten ditu, eta ikaskuntza-zailtasunak eta are gaitasun handiak dituzten ikasleentzat ere egokiak dira. Laburtzeko, analitzatzeko, hipotesiak egiteko eta iritziak emateko konpetentziak garatzen ditu, horretarako berariaz landuta arazoiketak, errepresentazio mota ezberdinak, ikuspegi eta perspektibak, lankidetzak, komunikazioa eta ezagutza-trukea eta STEAM konpetentziak. Jardueren zati handi bat lantaldeetan egitekoak dira eta ikasleen arteko elkarreragina maizkoa eta kalitatezkoa da.</p>	<p>Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain... Ikasleak dira ikaskuntza-egoeretako protagonistak, eta inplikatu egiten da ikaskuntzarako jarduera-proposamenetan eta ikasleek ikaskuntza-helburuak betetzeko behar dituzten materialetan. Egiten dituen jarduerak efikazak diren aztertzen du. Jakitun da garapenaren emaitzez eta egin duen bilakaeraz. Jarduerak egokiak proposatzen ditu, ikaskuntza-helburuak betetzeko eta konpetentziak garatzeko oso eraginkorrak izateaz gain, originalak, oso motibagarriak eta balio erantsi handikoak ere baitira.</p>
--	---	--	--

Rolen banaketa. Ikasgelako elkarreraginak:

<p>Ikasgelako jardueraren protagonista gisa jarduten du. Azalpen luzeak ematen ditu eta ikasleek rol pasiboa dute gehienetan.</p> <p>Elkarreragin gehienak norabide berekoak dira: irakasletik ikaslara edo irakasletik eta talde handira.</p>	<p>Ikasleen parte-hartzea sustatzen du, ikasleek parte hartzeko proposamenen bidez.</p> <p>Ikasleak aktibo egoteko eta beren ezagutza- eta lan-eritmoaren arabera aurrera egiteko moduan antolatzen du lana.</p> <p>Irakasle eta ikasle arteko elkarreraginaz gain, ikasleen arteko elkarreragina errazten duten egoerak ere planteatzen ditu.</p>	<p>Ikasleei protagonismoa ematen die eskoletan.</p> <p>Ikasleak beren ikaskuntzarekiko motibatuta eta konprometituta sentitzea lortzen du, baita saioan aktibo egoteko autonomia-maila jakin bat garatzea ere.</p> <p>Ikasleek ikasgelako arauen eta ikaskuntza-proposamenen inguruko erabakietan parte hartzea sustatzen du.</p> <p>Askotarikoak eta balio hezigarri handikoak dira ikasle-irakasle eta ikasle-ikasle motako elkarreraginak.</p>	<p>Ikasleei protagonismoa ematen die irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.</p> <p>Ikasleen gida eta bidelagun gisa jarduten du ikaskuntza-prozesuan, motibazio handia sortzen duten eta ikaskuntza eta garapen pertsonala sustatzen duten estrategia pertsonalizatuen bidez.</p> <p>Ikasleek lan-saio osoari probetxua ateratzeko autonomia-maila nahikoa garatu dute.</p> <p>Ikasgelako elkarreraginak askotarikoak dira eta balio hezigarri handia dute; halaxe uste dute irakasleek, ikasleek eta familiek.</p>
--	--	---	---

Jarraipena. Feedbacka:

<p>Feedbackak ikasleak asmatu duen ala ez jakiteko bakarrik balio du.</p> <p>Akatsak daudenean, ikasleen autoestimuari kalte egin diezaioketen erreakzioak izaten ditu.</p> <p>Ez ditu denbora edo prozedura nahikoa erabiltzen informazioa bildu eta jakiteko ikasleek zein neurritan jarraitzen duten eskola, ulertzen dituzten edukiak edo ari diren ikasten lantzen ari dena.</p> <p>Ez ditu behar beste aldaketa egiten, nahiz eta ikusi ikasleek ez dituztela aurreikusitako helburuak lortu, edo desmotibatuta dago.</p>	<p>Lantzean behin ikasleei feedbackak egiten dizkie zeinak erabilgarriak baitira haiei bidea erakusteko, baina batzuetan ez da behar bezain zehatza, eta beti ez da lagungarria ikasle guztien errendimendua hobetzeko edo ez da baliagarria ikasle guztientzat.</p> <p>Denbora eta prozedura nahikoak erabiltzen ditu informazioa bildu eta jakiteko ikasleek zein neurritan jarraitzen duten eskola, ulertzen dituzten edukiak edo ari diren ikasten lantzen ari dena.</p> <p>Noizean behin aldaketak egiten ditu partzialki eraginkorrak diren irakaskuntza-prozesuak egokitzeke.</p>	<p>Usu egiten dizkie feedbackak ikasleei, haien errendimendua hobetzeko gakoak emateko.</p> <p>Jardueren emaitzen gaineko gogoeta sustatzen du.</p> <p>Ikasleak gidatzen ditu, beren kabuz deskubritu ditzaten egindako akatsak, eta aukera ematen die akats horien gaineko gogoeta egiteko.</p> <p>Doikuntzak egiten ditu eta eraginkorrak dira ikasle gehienek aurreikusitako emaitzak lor ditzaten.</p>	<p>Feedbacka garaiz egiten du, eta eraikitzailea eta eraginkorra izaten da.</p> <p>Ikasleek beren ikaskuntza hobetzeko beharrezkoa den informazioa eta bultzada jasotzen dituzte feedbackaren bidez.</p> <p>Sistematikoki egiten ditu ikasle bakoitzak aurreikusitako helburuak lortzeko egin beharreko doikuntzak.</p> <p>Ikasle bakoitzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren jarraipena egiteko dinamika ikasleen emaitzetan eraginkortasun behagarria duten estrategien bidez egiten da.</p> <p>Lankidetzan aritzen da beste profesional batzuekin, eta eredu da ikasleen jarraipenari dagokionez.</p>
---	--	--	--

c) Ikaskuntzaren aurrerabidea kudeatzea. Ebaluazioa

1. maila: Oinarritzkoa

2. maila: Garatze bidean

3. maila: Garatua

4. maila: Aurreratua

Ebaluazio-, kalifikazio- eta igarotze-irizpide argiak, egokiak eta objektiboak:

<p>Ebaluazioa egiteko, ez ditu ebaluazio-, kalifikazio- eta igarotze-irizpide argi, egoki eta objektiboak erabiltzen, edo ez datoz bat ikastetxeko araudi orokor eta partikularrekin.</p>	<p>Irakaskuntza-jardunean eta ebaluazio-prozesuan, ikastetxeko araudi orokor eta partikularrekin bat datozen ebaluazio-, kalifikazio- eta igarotze-irizpideak erabiltzen ditu.</p> <p>Irizpide argi eta zehatzak erabiltzen ditu.</p>	<p>Gai da adierazle zehatz eta behagarriak sortzeko, haien bidez erabakiak hartu ahal izateko, helburuak lortzeari eta ebaluazio-irizpideak finkatzeari begira.</p> <p>Irizpide argi eta zehatzak erabiltzen ditu, eta horri esker, errazagoa da ikasleen aurrerapenari jarraipena egitea eta hartutako kalifikazio-arrazoiak argumentatzea.</p>	<p>Ikasleek ebaluazio-irizpideak definitzeko, zehazteko edo egokitzeko erabakietan parte hartzen dute.</p> <p>Beste irakasle batzuekin eta are Hezkuntza Sailarekin aritzen da lankidetzan irizpideak finkatu eta beste ikastetxe batzuentzat lagungarriak diren adierazleak zehazteko.</p>
---	---	--	---

Hasierako ebaluazioa:

<p>Ez du daturik biltzen hasierako egoerari, landuko den gaiarekiko ikasleek dituzten aurretiazko ezagutzei, zailtasunei, premiei, ikasleen interesei... buruz.</p>	<p>Datuak jasotzen ditu taldearen/klasearen hasierako egoerari buruz: landuko den gaiarekiko ikasleek dituzten aurretiazko ezagutzak, zailtasunak, premiak, ikasleen interesak...</p>	<p>Bestalde, 2. mailan jasotakoaz gain... Zehaztasunez jasotzen du zein den ikasle bakoitzaren hasierako egoera eta egin beharreko aldaketak egiten ditu irakaskuntza-ikaskuntza prozesua pertsonalizatzeko.</p> <p>Prozedurak ezartzen ditu irakasleen taldeko kide bakoitzak jasotako datuak uztatzeko.</p>	<p>Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain... Batetik, informazioa biltzeko prozesua, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren egokitzapena eta irakasleen taldearen koordinazioa, eta, bestetik, ikasleek –eta batzuetan, familiek– hasierako ebaluazioan parte hartzea errazten dituzten estrategiak, tresnak eta prozedurak erabiltzen ditu.</p>
---	---	---	--

Jarraipen- eta ebaluazio-uneak:

<p>Unitate didaktikoaren amaieran edo ebaluazio-saioaren aurretik probak egiten ditu ikasleen ebaluazioa egiteko. Funtsean, ebaluazio batutzailea da. Oso gutxitan jasotzen du ikasleek menderatutako ikaskuntzei buruzko informazio objektibo eta sistematikoa, etengabeko ebaluazioaren irizpideen araberakoa.</p>	<p>Teknika ezberdinak erabiltzen ditu ikasle bakoitzak menderatutako ikaskuntzen aurrerabidea objektiboki eta sistematiko biltzeko, etengabeko ebaluazioaren irizpideekin bat etorrira. Behatutakoak modu argian erregistratzen ditu. Ikasleen aniztasunari aurre egiteko laguntza-, sendotze- eta sakontze-prozedurak diseinatu eta erabiltzen ditu.</p>	<p>Bestalde, 2. mailan jasotakoaz gain... Ikasleei edo beren familiei aurrerabide horretan hautemandako aurrerapenen edo zailtasunen berri ematen die agerikoak direnean. Ebaluazioa hezigarria da, argi eta garbi. Beharrezkoa bada, birbideratu egiten du irakaskuntza-ikaskuntza prozesua. Lortu egiten du ikasleak beren indargune eta ahulgunez kontziente izatea.</p>	<p>Modu egokian hautatzen ditu ikasleen aurrerabidearen berri ematen duten ebidentziak eta ebidentzia horiek behatzeko edo jasotzeko modua aurretiaz planifikatuta dago. Gainera, gai da ebaluazio-prozesua birbideratzeko aurreikusten badu ebidentzia gutxiegi daudela edo ez direla egokiak. Teknika ezberdinak erabiltzen ditu. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta birbideratzen du. Hautemandako aurrerapenak edo zailtasunak ikasleei edo beren familiei transmititzen dizkie, eta balio erantsi handiko jarraibideak ere ematen dizkie horiekin batera. Irakasleak egindako prestakuntza-ebaluazioaz gain, koebaluazioa ere egiten da. Halaber, ikasleak gai dira beren autoebaluazioa egiteko.</p>
--	---	---	--

Ebaluazio-prozedurak:

<p>Ebaluazio-prozedura gutxiegi erabiltzen ditu edo ez dira egokiak ikasleen heziketa-mailari eta motari erreparatuta. Ez dute bermatzen ebaluazioa objektiboa eta hezigarria izango denik. Oro har, proba puntualak egiten dira (azterketa) eta/edo erregistratzen ez diren eta sistematikoak ez diren pertzepzioak jasotzen dira.</p>	<p>Askotariko prozedurak erabiltzen ditu (teknikak, tresnak...) ikasleen ikaskuntzak ebaluatzeko, eta bat datoz ikasgaiarekin eta ikasleen ezaugarriekin. Bermatu egiten du objektibotasuna, eta ebaluazioaren funtzio hezigarria sustatzen du.</p>	<p>Bestalde, 2. mailan jasotakoaz gain... Autoebaluazioa, autonomia eta akatsetik abiatutako ikaskuntza sustatzeko balio duten prozedura eta tresnak erabiltzen ditu. Oinarrizko kompetentzien garapena neurtzen du.</p>	<p>Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain... Prozedura berritzaile, original eta eraginkorrak erabiltzen ditu. Aldi berean ebaluatzen ditu hainbat alderdi, batez ere kompetentziak ebaluatzen dituenean. Ebaluazioaren funtzio hezigarria ikasleek ere ikusten dute (eta, kasuan-kasuan, baita familiek ere).</p>
---	---	--	---

Ikasleen autonomia beren aurrerapenei jarraipena egiteko:

<p>Ezin du ziurtatu ikasleek beren ikaskuntza-prozesuaren arrakasta zehazten duten ebaluazio-irizpideak ezagutu edo ulertzen dituztenik, eta ez da hauteman ikasleek irizpide horiek ezagutzeko eta ulertzeko prozedurarik erabili duenik.</p>	<p>Ikasleen ebaluazio-irizpideak ezagutzeko prozedurak prestatzen ditu.</p> <p>Ikasleak beren ikaskuntza-prozesuaz kontziente izatea errazteko prozedurak prestatzen ditu, gutxienez beren zailtasunen jakitun izan daitezten.</p>	<p>Ikasleen ebaluazio-irizpideak ezagutzeko eta ulertzeko prozedurak prestatzen ditu.</p> <p>Ikasleek aurrera egiten duten jakiteko eta beren aurrerapena baloratzeko gai izateko prozedurak prestatzen ditu.</p>	<p>Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain... Ikasleek badakite ikaskuntza-helburuak lortu dituzten ala ez, eta gai dira beren aurrerabidea baloratzeko.</p> <p>Ikasleek ebaluazio-irizpideen birformulazioan edo zehaztapenean parte hartzea sustatzen du, beren ikaskuntza-prozesuari bultzada bat emateko, bai zailtasunak dituztenean, bai sakontzeko beharra dutenean.</p>
--	--	---	---

Ebaluazioaren ondorioak:

<p>Ikasleen ebaluazioaren emaitzak ez ditu behar beste aztertzen.</p> <p>Ez du aintzat hartzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan lortutako emaitzen arabera hobekuntzak txertatzeko aukera.</p>	<p>Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hobekuntzak txertatzen ditu lortutako emaitzen arabera.</p>	<p>Emaitzak zuzendaritza taldeko / zikloko / saileko kideekin, ikasleekin eta beren familiarekin aztertzen ditu, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ikasle bakoitzaren premien arabera birbideratzeko, egokitzeko eta pertsonalizatzeko.</p>	<p>Ikasleek eta beren familiek ondo baloratzen dituzte egindako ebaluazio-prozedurak, eta aurrera egiteko baliagarriak direla uste dute.</p> <p>Erraztasunak ematen ditu ikasleek eta beren familiek indarguneen eta ahulguneen identifikazioan eta horietatik abiatuta, aurrera egiteko estrategien bilaketan parte har dezaten.</p>
---	--	--	---

Ebaluazioaren emaitzei buruzko informazioa:

<p>Ikasleei (eta/edo familiei, kasuaren arabera) kuantitatiboki eta justifikaziorik gabe jakinarazten dizkie ebaluazioaren emaitzak.</p> <p>Erabakiak ez ditu behar beste arrazoitzen.</p>	<p>Aldian-aldian ematen die ikasleei (eta/edo familiei, kasuaren arabera) beren ikaskuntzen eboluzioaren berri, datu kuantitatiboen eta azalpen xehatuen bidez.</p>	<p>Maiz ematen die emaitzei buruzko informazioa ikasle eta familia guztiei, eta horrez gain, proposamenak egin eta gomendioak ematen dizkie ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan aurrera egiteko eta familiei bide horretan laguntzeko eta inplikatzeko erraztasunak emateko.</p>	<p>Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain... Askotariko prozedurak erabiltzen ditu maiz emaitzen eboluzioari buruzko informazioa emateko.</p> <p>Ikasleek eta familiek adierazten dute ulertu egiten dituztela irakasleak hautemandako eta transmititutako indargune eta zailtasunak.</p> <p>Ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren benetako sustatzaitzat ditu jasotako jarraibideak.</p>
--	---	---	---

d) Inklusioa

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Lan-plana ikasleen aniztasuna aintzat hartu gabe gauzatzen du.</p> <p>Ez die erreparatzen ezberdintasunei (curriculum, konpetentziak, kultura, generoa, jatorria, egoera ekonomikoa, eta abar), edo bere jardunerako oztopotzat ikusten ditu.</p> <p>Ikasle batzuek arrakastarako aukera gutxi dituztela uste du.</p>	<p>Zailtasunak dituzten ikasleen eta azkarrago aurrera egin nahi dutenen premiak identifikatzen ditu.</p> <p>Ikasle bakoitzaren zailtasunei erantzuteko estrategiak partekatzen ditu, eta estrategiok ikasgelako jardueretan integratzen saiatzen da.</p>	<p>Atazak ikasle guztiek dagokion unitate didaktikoko helburuak lantzeko moduan abiatzen ditu, baina, aldi berean, bakoitzaren premietara ere egokitzen dira.</p> <p>Itxaropen handiak ditu ikasleen emaitzekiko, eta helburuak betetzen laguntzen die.</p> <p>Beharrezkoa bada, espezialisten aholkua eta laguntza eskatzen du, bai zailtasunak dituzten ikasleentzat, bai curriculum aberasteko jarduerak behar dituztenentzat; eta posible den neurrian, ikasgela arruntean ere txertatzen ditu horiek guztiak.</p> <p>Aniztasunari balioa ematen duen eta aukerak sortzen dituen elementu gisa heltzen dio.</p>	<p>Egokiro planteatzen ditu atazak, ikasle guztiek ahalik eta gehien garatu ditzaten konpetentziak, inklusioaren ikuspegitik.</p> <p>Eskolaren dinamikan integratzen ditu hezkuntzako langileen laguntzak ikasgelaren ikuspegi orokorretik.</p> <p>Estrategia eraginkorrak erabiltzen ditu ikasle guztiek lor ditzaten beren helburuak.</p> <p>Aniztasuna herritartasunarekin eta taldearen kohesioarekin erlazioatutako balioak eta curriculum garatzeko aberastasun eta aukera gisa baliatzen du.</p> <p>Aniztasuna sistematikoki erabiltzen du bere jardueretan.</p>

e) Ikasleak beren ikaskuntzetan inplikatzeari

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Curriculumeko gaiak eta proposatutako jarduerak ikasle gutxi batzuen interesa baino ez dute pizten.</p> <p>Bakarkako ikaskuntza-egoerak bakarrik proposatzen ditu, eta horrek ikasleen arteko ezberdintasunak uzten ditu agerian (maila aurreratua duten ikasleak, zailtasunak dituztenak...). Ez hori bakarrik, motibazio falta eragiten du, batez ere, zailtasun handienak dituzten ikasleengan.</p>	<p>Curriculumeko gaiak eta proposatutako jarduerak ikasle guztien interesa pizten dute.</p> <p>Ikasleen arteko lehia gehiegi sustatzen ez duten jarduerak proposatzen ditu.</p> <p>Ikasle guztien arrakasta eta ikasleak beren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan inplikatzeari sustatzen duten planteamendu metodologikoak egiten ditu.</p>	<p>Ikasle guztien ikaskuntza esanguratsuekiko interesa pizten du, bere eskolak ikasleen interesen eta trebetasunen arabera doitu.</p> <p>Lankidetzako proposamenak egiten ditu ikasleek talde osoaren arrakastarekiko konpromisoa senti dezaten eta elkarrekin lankidetzan aritu daitezten.</p>	<p>Ikasle guztiak inplikatzeari ikaskuntza esanguratsuan, eta bere eskolak ikasleen interesen eta trebetasunen arabera doitzen dituztenez, ikasleak beren ikaskuntza-prozesuarekiko konpromisoa sentitzea ahalbidetzen du.</p> <p>Ikasle guztiak aritzen dira modu positiboan elkarlanean, eta aitortu egiten dira ikaskide guztien esfortzu eta lorpenak.</p>

f) Tutoretza eta orientazio akademiko eta pertsonala. Familiekin koordinatzea. Balioetan oinarrituta hezte

1. maila: Oinarrizkoa

2. maila: Garatze bidean

3. maila: Garatua

4. maila: Aurreratua

Ikasleekin inplikatzeko

<p>Antzeko arreta ematen die ikasle guztiei, beren premiei eta ezaugarri pertsonalei erreparatu gabe.</p>	<p>Ikasle guztiekin inplikatzeko da, batez ere premia akademiko eta pertsonal handienak dituztenekin.</p> <p>Bidezkoak ez diren edo ikasleei ezinezona eragiten dieten egoeretan esku hartzen du.</p> <p>Ikasle guztien arrakastan eta ongizatean parte hartzen du.</p>	<p>Egiten dituen jarduketak guztiak dira inklusiboak, eta ikastetxearen dinamikaren eragiten du ikastetxean horrelako jarduketak orokortu daitezkeen.</p> <p>Ikasleen inklusioa, ongizatea eta garapen pertsonal, sozial eta akademikoa hobetzen lagunduko duten estrategia eta metodoak bilatu eta ezartzen ditu.</p>	<p>Hezkuntza-komunitatean aitortzea du ikastetxean ikasle guztien inklusioa eta ongizatea eta garapen integrala lortzeko lan egiten duelako.</p> <p>Inplikatu egiten da eta ezaguna da pertsonaren garapen orokorra/holistikoa lortzeko inplikazioa duelako.</p>
---	---	--	--

Balioak lantzea:

<p>Besteak beste, solidaritatea, lankidetzak eta tolerantzia lantzen ditu.</p> <p>Ikasgelan ez du inolako diskriminaziorik onartzen: soziala, etikoa, erlijiosoa, generoagatikoa... Hala ere, horrelako zerbait jazotzen bada, familiei eta/edo taldearen tutoreari jakinarazten dio eta ez du besterik egiten.</p>	<p>Ikasleek beren balioak garatzea sustatzen du: erantzukizuna, errespetua, solidaritatea, tolerantzia, justizia... Hori guztia esku-hartze formal eta informaletan.</p> <p>Ikastetxean indarkeria, aurreiritziak eta diskriminazio mota guztiak une oro eta edonon prebenitzeko eta horien gainean hezteko adostutako ekintzak egiten ditu.</p> <p>Ikastetxeko ikasle guztiak tutorizatzen ditu lana hartzen du bere gain, bere lanaren funtsezko alderdi gisa.</p>	<p>Ikasleengan balioak garatzeko lan egiten du eta balio horien garapen-maila ebaluatzen du jarduketak planifikatu eta sistematikoen bidez.</p> <p>Ikasleen balioak garatzera bideratutako ekintzak sustatzen ditu ikastetxean.</p> <p>Tutore-lanetan inplikatzeko da, ideiak ematen dizkie kideei eta kideengandik ikasten du.</p>	<p>Ikastetxe barruan eta kanpoan eredutzat daukate, balioetan oinarritutako hezkuntzari eta bizikidetzarako kompetentziari dagokienez.</p> <p>Ikasleen balioak garatzeko eraginkorrak diren jarduketak egiten ditu.</p> <p>Aktiboki eta eraginkortasunez jarduten du balioak garatzeko ekintza eta planak prestatzeko ekarpenak egiteko.</p> <p>Balioetan oinarrituta hezteari buruzko jardunaldietan parte hartzen du eta horri buruzko proiektuetan parte hartu eta prestakuntza ematen du.</p>
---	--	---	---

Gardentasuna:

<p>Ez ditu bere erabakiak behar beste azaltzen, batez ere ebaluazioarekin edo jokabideen birbideratzearekin zerikusia badute.</p>	<p>Bere erabakiak justifikatzen ditu, argi eta garbi uler dadin ikasleen ongizatera bideratuta daudela.</p> <p>Aintzat hartzen ditu besteen iritziak eta bere erabakiak doitzeko prestutasuna du.</p>	<p>Hartutako erabakien azalpenetan argi ikusten da asmo pedagogikoa, eta erabakiok ondo ulertu daitezen eta, posible den neurrian, partekatuak izan daitezen saiatzen da.</p>	<p>Hezkuntza-komunitateak aitortu egiten ditu eta konfiantza ematen die erabakiak hartzeko erabiltzen dituen irizpideei.</p>
---	---	---	--

Ikaskuntza-estilo ezberdinetara egokitzea:

<p>Ikasle gutxi batzuek bakarrik ateratzen diote benetan etekina beren ikaskuntza-estiloari.</p> <p>Arreta handiagoa jartzen dio garapen akademikoari garapen sozio-afektiboari baino.</p> <p>Ikasleei ematen dien informazioak ez du beti erakusten sakon ezagutzen dituela ikasleen ezaugarriak.</p>	<p>Aukerak sortzen ditu ikasleek beren ikaskuntza-patroi eta -estiloak erabili ditzaten eta ahalik eta probetxu handiena atera diezaieten.</p> <p>Alderdi sozio-afektiboa garatzeko aukerak arazoak hautematen dituenen baino ez ditu sortzen.</p>	<p>Aukerak sortzen ditu ikasle guztiek ezagutu eta erabili ditzaten beren ikaskuntza-eredu eta -estiloak, beren aurrerabidea errazte aldera.</p> <p>Ikasle guztien garapen sozio-afektiborako aukerak sortzen ditu.</p>	<p>Aukerak sortzen ditu ikasle guztiek hobeto ezagutu dezaten beren burua, ahalik eta etekin handiena atera diezaieten beren ikaskuntza-estilo eta ezaugarri pertsonalei eta arrakasta akademiko eta sozio-afektiboa lor dezaten.</p> <p>Familiak beren seme-alaben garapen integralean inplikatzeko dituzten aukerak ezaugarri eta potentzialak onartzetik abiatuta.</p>
--	--	---	---

Banakako eta taldeko tutoretzak eta orientazioa:

<p>Taldeko tutoretzen edukia ez du behar beste garatzen, ikastetxeko tutoretzako ekintza-planari erreparatuta.</p> <p>Ez da behar beste aritzen lankidetzan irakasleen taldeko gainerako kideekin.</p> <p>Ikasleei ez die orientazio nahikoa ematen.</p>	<p>Taldeko tutoretzen edukia bat dator ikastetxeko tutoretzako ekintza-planarekin ezarritakoarekin.</p> <p>Lankidetzan aritzen da eta koordinatu egiten da eskola ematen duen taldeetako tutoreekin.</p> <p>Ikasle guztiei ematen die orientazioa, eta irakasleen taldeko beste kide batzuekin batera egiten du.</p>	<p>Tutoretzako ekintza-plana hobetzen laguntzen du.</p> <p>Taldeko eta banakako tutoretzak ikasleen alderdi pertsonalean, akademikoan, sozialean eta emozionalean hobekuntza esanguratsuak izatera daude bideratuta.</p> <p>Lankidetzan eta koordinazioan sustatzen ditu bere irakasle-taldeetako irakasleekin.</p>	<p>Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain... Taldeko eta banakako tutoretzak sortzaileak dira.</p> <p>Bere jardunbide egokiak partekatzen ditu eta horregatik du ospe ona ikastetxe barruan eta ikastetxetik kanpo.</p> <p>Irakasleen taldea koordinatzen du; hari esker, adostasunetara iristen dira eta ikasle guztien lorpen bihurtzen diren jarraibideak ematen ditu.</p>
--	--	---	--

Ebidentzia-iturriak



- Elkarrizketak
- Ikasgela barruko eta kanpoko jardunaren behaketa
- Ikasleen aurrerabidearen analisia
- Tutoretza ekintza-planak programazioetan duen islaren analisia
- Irakaslearen koadernoaren analisia
- Elkarrizketak ikasleei, familiei, irakasleei

a) Ikasleekin elkarreraginean aritzea

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Zailtasunak ditu ikasleekiko harremanetan.</p> <p>Egiten dituen esku-hartze eta eskaerak ez datoz bat ikasleen ezaugarri eta premiekin.</p> <p>Zailtasunak ditu ikasleak jarduerak egiten dituzten bitartean gainbegiratzeko, beren segurtasuna bermatzeko eta balizko gatazkak konpontzeko.</p>	<p>Harreman ona du ikasleekin, eta bat dator beren ezaugarri eta premiekin.</p> <p>Ikasleak behatu eta gainbegiratu egiten ditu jarduerak egiten dituzten bitartean beren segurtasuna bermatzeko; beren aurrerabidea ebaluatzeko; garapen akademiko, sozial edo emozionalean eta osasunean egon daitezkeen arazoak hautemateko, eta balizko gatazkak konpontzeko.</p>	<p>Ikasleekiko harreman horrek ikasleek bizi dituzten egoera zailak kontatzeko edo laguntza eskatzeko konfiantza izatea errazten du.</p>	<p>Ezaguna da ikasleei laguntzeko eta konfiantza emateko gaitasuna duelako.</p> <p>Ikasleek irakaslearengana jotzen dute laguntza, orientazioa, aholkua... eskatzeko.</p>

b) Irakasleekin elkarreraginean aritzea. Talde-lana egitea

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Zailtasunak ditu taldean lan egiteko.</p> <p>Zailtasunak ditu kritika eraikitzaileak onartzeko.</p> <p>Oso babes gutxi ematen die erakundea osatzen duten gainerako pertsoneri.</p> <p>Ez ditu behar beste errespetatzen gainerakoen sentimenduak, eskubideak eta iritziak.</p> <p>Ez daki gatazka-egoerak identifikatzen eta egoera horiek ebazteko laguntza bilatzen.</p> <p>Ez ditu bere egiten taldearen helburuak, eta bere lana ez dago helburu horietara bideratuta.</p>	<p>Taldean lan egiten du: lankidetzan aritzen da eta jardunbideak, baliabideak, prestakuntza... partekatu eta erkatzen ditu.</p> <p>Kritika eraikitzaileak egiteko eta jasotzeko prestutasun ona du, baita aldaketak onartzeko, talde-lana egiteko, hezkuntza-praktika eta -jardunbideak partekatzeko eta erkatzeko, esperientzia egiteko eta prestakuntza jasotzeko ere.</p> <p>Bultzatu eta animatu egiten ditu gainerakoak: itxaropen positiboak dituela adierazten die eta interesa erakusten du beren garapenean.</p> <p>Ulertu egiten ditu gainerakoen emozioak eta emozio horiek norbanakoaren jardunbidean duten eragina; saihestu egiten ditu orokortzeak eta aurreiritziak.</p> <p>Modu positibo eta zuzenean prebenitzen eta ebazten ditu gatazkak.</p> <p>Aktiboki eta modu eraginkorrean laguntzen du taldean lan egiten denean, bete egiten ditu berari esleitutako lanak eta taldearen erabakiak babesten ditu.</p> <p>Halaber, partekatu egiten du helburu komunak lortzeko beharrezkoa den informazioa.</p>	<p>Aktiboki hartzen du parte taldeko dinamiketan eta kritika eraikitzaileak, aldaketarako prestutasuna, eztabaida, talde-lana, hezkuntza-praktika eta -baliabideak partekatzeko eta erkatzeko, esperientzia, prestakuntza... sustatzen ditu dinamika horietan.</p> <p>Gainera, taldekideei ikaskuntza berriak egiten eta beren irakaste-kompetentziak hobetu eta eguneratzen laguntzen die.</p> <p>Orientazioa eta laguntza ematen dizkie, etengabe, berarekin lanean ari direnei.</p> <p>Norberak eta besteek jardun profesionalarekiko dituzten emozioak adierazteko bidea ematen du.</p> <p>Bitartekaritza-estrategiak erabiltzen ditu eta konponbide informatu, eraikitzaile eta bideragarriak ematen ditu gatazka profesionalak eta inguruneko gatazkak ebazteko.</p> <p>Eraginkortasunez sustatzen du lantalde ezberdinen parte-hartzea eta lankidetzak.</p> <p>Koordinazio-lanak bere gain hartzen ditu</p>	<p>Oso eraginkorrak diren taldeetan lan-esperientziak sustatzeagatik da ezaguna.</p> <p>Ikastetxean ikasleen parte-hartze aktiboa izango duten eta ikaskuntzen lorpenak nabarmen hobetuko dituzten talde-laneko dinamika erabiltzea sustatzen du, eta, aldi berean, berari eta bere lantaldeari dagozkion irakaste-kompetentziak garatzen ditu.</p> <p>Eragin positiboa du gainerakoen jarduketetan, eta helburu komunak lortzeko konpromisoa hartzea lortzen du.</p> <p>Birbideratu egiten ditu beraren eta besteen emozioak, eta egoera positiboak sortzen ditu harreman pertsonal eta profesionalean.</p> <p>Bitartekaritza-prozesuetan eta gatazkak ebazteko prozesuetan parte hartzen du, eta beste batzuei bitartekaritza-lanak egiteko beharrezkoak diren trebetasunak garatzen laguntzen die.</p> <p>Bere ikastetxean eta best ikastetxe batzuetan erreferentziatzat erabiltzen diren lan-ereduak ezartzen ditu.</p> <p>Ikastetxean koordinazio- eta/edo ordezkari- eta/edo zuzendaritza-lanak hartzen ditu.</p>

c) Familiekin elkarreraginean aritzea. Familiak informatzea eta inplikatzea

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Ez ditu ikastetxeko araudiaren arabera egin beharko lituzkeen elkarrizketak egiten familiekin.</p> <p>Prestutasun gutxi erakusten du familiak artatzeko, informatzeko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan txertatzeko.</p> <p>Informazio gutxi ematen du irakaskuntza-programari buruz. Ez du uste familiak bera ezagutzea beharrezkoa denik.</p> <p>Familiekiko harremanak eta komunikazioak ez dute ikasleen hezkuntza-prozesuan beharrezkoa den koordinazioa errazten.</p> <p>Informazio gutxi eta desegokia jasotzen du ikasleak hobeto ezagutzeko.</p> <p>Familien kezkei ez die erantzuten, eta erantzuten badu, sentikortasun gutxi erakusten du.</p>	<p>Maiz ematen die informazioa familiei hezkuntza-programari buruz.</p> <p>Irakasgai guztietako prozeduren, tresnen, ebaluazio-irizpideen, gutxieneko ikaskuntza-estandarren eta kalifikazio-irizpideen berri ematen du.</p> <p>Elkarrizketak antolatzen ditu familiekin beren seme-alaben aurrerapenen edo zailtasunen berri emateko, ikasleak ezagutzeko, ekintzak birplanteatzeko eta gurasoen laguntza eskatzeko, eta iradokizunak egiten dizkie seme-alaben ikaskuntzan lagundu dezaten.</p>	<p>Bestalde, 2. mailan jasotakoaz gain... Eraginkortasunez planifikatzen ditu bilerak, eta komunikazioa maizkoa eta arina da.</p> <p>Zehaztasunez eta modu egokian ematen du ikastetxearen programa orokorren eta egiten diren jardueren zentzu pedagogikoaren berri.</p> <p>Estrategiak erabiltzen ditu familiekin beren seme-alaben hezkuntzan eta ikastetxeko bizitzan parte hartu eta kooperatu dezaten.</p> <p>Jarrera irekia du iritzi eta iradokizunekiko.</p>	<p>Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain... Familien kezkei erantzuten die, eta sarritan ahalegintzen eta lortzen du familiak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan inplikatzea.</p> <p>Ikasleek eta familiekin uste osoa dute haren gain, eta estimatzen dute haren kompetentzia profesionala, alderdi akademiko zein pertsonalean.</p> <p>Familiak ikastetxeko jardueretan inplikatzeko jarduketaren planak dinamizatzen ditu.</p>

d) Ingurunearekin elkarreraginean aritzea

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Ez du oso ondo ezagutzen ikasleek etxean duten egoera, ezta beren testuinguru sozial eta kulturala ere. Ez ditu ezagutzen ikastetxearen inguruneak eman ditzakeen baliabideak.</p>	<p>Ikasleek etxean duten egoera eta beren testuinguru sozial eta kulturala ezagutzen ditu, eta aintzat hartzen ditu irakaskuntza-ikaskuntza prozesua planifikatzean eta ikastetxeko beste jardueren batzuetan.</p> <p>Ikastetxearen ingurunean dauden komunitateko baliabideak erabiltzen ditu bere irakaskuntza-lana garatu eta hobetzeko.</p>	<p>Ikasleek etxean duten egoerari eta beren testuinguru sozial eta kulturalari buruz duen ezagutza erabiltzen du irakaskuntza-ikaskuntza prozesua aberasteko, ikastetxearen funtzionamendua hobetzeko eta ezarritako helburuak betetzeko lagungarriak izango diren aliantzak sortzeko.</p>	<p>Bestalde, 3. mailan jasotakoaz gain... Komunitateko baliabide ezberdinen erabilera sustatzen du.</p> <p>Erakunde eta elkarte ezberdinen esku-hartze plan partekatuak sortu, planifikatu, kudeatu eta koordinatzen ditu, hezkuntza hobetzeko proiektu komuna oinarritzat hartuta.</p>

e) Beste ikastetxe edo erakunde batzuekin elkarreraginean aritzea

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Ez dauka harremanik beste ikastetxe batzuetako profesionalekin eta koordinazioa araudian ezarritakora mugatzen da.</p> <p>Ikasleekin egiten duen lana ikastetxe barruko atazetara mugatzen da.</p> <p>Ez ditu erabiltzen beste ikastetxe batzuetan ondo baloratutako esperientzia edo praktikak.</p>	<p>Noizean behin koordinatzen da beste profesional batzuekin bere lana errazteko informazioa eman edo jasotzeko.</p> <p>Ibilbideko ikastetxearekin koordinatzen da, eta ikasleen egokitzapena eta hezkuntzako aurrerabidea erraztuko duen informazio baliagarria partekatzen du.</p> <p>Egokia bada, beste ikastetxe batzuetara joango diren ikasleei buruzko informazio garrantzitsua trukatzeko du, ikastetxe berrian hastea errazagoa izan dadin.</p> <p>Beste ikastetxe batzuekin truke-harremanak ditu, jardunbide egokiak, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak eta eskola-antolakuntza hobetzea helburu duten esperientzia arrakastatsuak trukatzeko.</p>	<p>Hezkuntza-sistemaren helburuekin eta printzipioekin zerikusia duten hobekuntza- edo esperimendazio-proiektuetan hartzen du parte.</p> <p>Harreman sistematikoa du ibilbide bereko ikastetxeekin, bai ikasleei buruzko informazioa igortzeari dagokionez, bai lanerako ildo koherenteak ezartzeko behar den koordinazioari dagokionez.</p> <p>Ikastetxeen arteko koordinazio-, prestakuntza- eta truke-bileretan parte hartzen du, eta ikastetxearen beraren praktikak azaltzen ditu, hausnarketak partekatuzeko.</p>	<p>Lankidetzaren sareak sustatzen ditu beste profesional, ikastetxe, elkarte edo erakunde batzuekin.</p> <p>Ibilbide bereko ikastetxeekin egindako lantaldeak eta proiektuak sustatu eta zuzentzen ditu, ikasleen ibilbide akademikoko planteamendu pedagogikoak koherenteak izan daitezkeen.</p> <p>Bere proiektuak sistematikoki hobetzeko koordinatzen den beste ikastetxe, erakunde eta organismoen ekarpenak eta praktikak erabiltzen ditu bere proiektuak hobetzeko.</p> <p>Jasotako ekarpenak eta esperimendatutako praktikak sistematikoki ebaluatzen dira, eta ikastetxearen hobekuntzan duten eragina egiaztatzen da.</p>

f) Ikastetxearen kudeaketan parte-hartzea eta lankidetzan aritzea

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Gutxi aritzen da lankidetzan zuzendaritza taldearekin ikastetxearen beraren eta ikastetxean egiten diren jarduera hezigarrien funtzionamendu egokia bermatzeko.</p> <p>Ez du aintzat hartzen ikastetxeko dokumentu orokorren edukia.</p> <p>Ez du proiektuetan parte hartzen, ezta horien gaineko konpromisorik hartzen ere.</p> <p>Ez da agertzen kide den kide anitzeko organoen bileretara, eta ez du hutsegitea justifikatzeko arrazoirik.</p> <p>Ez ditu organo horien hitzarmenak edo jarraibideak errespetatzen eta/edo maiz jartzen ditu eragozpenak horiek betetzeko.</p> <p>Ez du ikasgelan eskolak ematearekin zuzenean zerikusirik ez duen ezer egin nahi (ikastetxeko urteko planean jasotako jarduera osagarriak).</p> <p>Uko egiten dio ikastetxearen kudeaketarekin zerikusia duen erantzukizun oro hartzeari (zuzendaritza-karguak...)</p>	<p>Zuzendaritza-taldearekin lankidetzan aritzen da hala eskatzen diotenean.</p> <p>Bere egiten du ikastetxeko dokumentu orokorretan xedatutakoa.</p> <p>Eskolako proiektuetan parte hartzen du. Kide den kide anitzeko organoen bileretara bertaratzen da.</p> <p>Ezagutu eta bete egiten ditu kide anitzeko organoen hitzarmenak eta jarraibideak.</p> <p>Ikastetxeko lanaldi arruntean ikasgela barruko nahiz kanpoko eskola-jardueretan (jarduera osagarriak) hartzen du parte.</p> <p>Ez dio uko egiten ikastetxearen kudeaketarekin zerikusia duten erantzukizunak hartzeari (zuzendaritza-karguak, etab.).</p>	<p>Sistematikoki aritzen da lankidetzan zuzendaritza-taldearekin, eta erraztasunak ematen ditu taldeak ikastetxearen beraren eta ikastetxeko jardueren funtzionamendu egokirako.</p> <p>Aktiboki hartzen du parte ikastetxeko dokumentu orokorren prestaketan, eta ekarpenak egiten ditu.</p> <p>Ikastetxeko eta inguruneke proiektuetan parte hartu eta inplikatzan da. Proiektuak biribiltzen dituzten ideiak ematen ditu, eta aktiboki egiten ditu ekarpenak proiektuok arrakastatsuak izan daitezten.</p> <p>Modu kritiko eta eraikitzailean onartzen ditu ebazpen eta jarraibideak.</p> <p>Aktiboki hartzen du parte kide den kide anitzeko organoen bileretan.</p> <p>Lankidetzan aritzen da adostasunak lortzeko, eta adostasunetara iristeko ideiak ematen ditu. Aktiboki parte hartzen du ikasgela barruan eta kanpoan egiten diren eskola-jardueren antolaketa eta kudeaketa egiteko lanetan.</p> <p>Prest dago ikastetxearen kudeaketarekin zerikusia duten erantzukizunak hartzeko (zuzendaritza-karguak, etab.).</p>	<p>Ideiak ematen ditu, konponbideak proposatzen ditu edo zuzendaritza-taldeari eskaintzen dizkion proiektuak diseinatzen ditu, ikastetxearen beraren eta ikastetxeko jarduera hezigarrien funtzionamendu egokia errazteko.</p> <p>Zuzendaritza-lanetan eraginkortasunez aritzen da. Ikastetxeko dokumentuen prestaketa zuzentzen du. Ikastetxeko proiektuak zuzentzen ditu.</p> <p>Konpromiso argia du ikastetxearen funtzionamenduaren hobekuntzarekiko eta planteatutako helburuekiko.</p> <p>Proposatutako helburuak betetzeko neurriak zuzentzen, dinamizatzen etaosatzen ditu kide anitzeko organoen aurrean egindako esku-hartze eta proposamenen bidez.</p> <p>Ikastetxean programa akademikoa osatzen eta indartzen dituzten eskola-jarduerak proposatzen, antolatzen eta zuzentzen ditu.</p> <p>Bere emaitzak aztertzen ditu etengabe hobetzeko. Eskola-komunitateak aitortu egiten ditu irakaslearen inplikazioa eta sustatzen dituen jardueren balio erantsia.</p>

Ebidentzia-iturriak



- Elkarrizketa
- Autoebaluazioa
- Irakaslearen koadernoak - Harrera-planak
- Ebaluazio-saioetako aktak
- Koordinazio- eta funtzio-egitura - AJA
- HIBP

a) Tasun pertsonalak: tasun emozionalak, humanoak, etikoak eta profesionalak

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Enpatia eta oreka emozionala falta ditu. Zailtasunak ditu gatatzak kudeatzeko. Zailtasunak ditu emozioak tentsio-egoeretan kudeatzeko. Zailtasunak ditu itxaropenak bete ez izanak eragiten dion frustrazioa kudeatzeko. Gizarte-trebetasun gutxi du; iruditzen zaio balioetan edo giza eskubideetan oinarrituta heztea ez dagokiola hezkuntza-jardunari. Ez dauka interesik hezkuntza-komunitateko gainerako kideek egin diezazkioketen ekarpenekiko. Uste du ez dagokiola berari eskola-komunitateko kideek planteatzen dizkieten egoera pertsonal edo sozialak artatzea.</p>	<p>Entzun egiten ditu eskola-komunitateko gainerako kideen eskaerak, bereziki ikasle eta familienak. Bere autoritatea baliatzen du gatatzak kudeatzeko. Batzuetan, emozionalki inplikatzeko da eta zailtasunak ditu bere emozioak kudeatzeko. Jarrera moldakorra du ezusteko egoerei edo aurretiazko itxaropenekin bat ez datozen egoerei aurre egiteko. Aitortu egiten du garrantzitsua dela eskolan balioak eta giza eskubideak lantzea, eta uste du ikasleen tasun humanoak garatzea ikasleen prestakuntzaren gako elementua dela. Entzun egiten ditu gainerakoek ekarpenak. Arazoak eta zailtasunak dituen hezkuntza-komunitateko edozein kideri laguntzeko joera jasanbera du, eta zuhurtiaz jokatzeko du.</p>	<p>Aktiboki entzuten du, zailtasun emozionalengatik egindako laguntza-eskaerak eraginkortasunez kudeatzeko. Gatatzeko ebazpenean alde guztiei erabaki bat hartzen laguntzeko argudioen bidez esku hartzen du. Jarrera hurbila eta ulerkorra du, baina gai da egoerak deseroso sentiaraztea saihesteko. Ezusteko egoerak edo hasierako itxaropenekin bat ez datozenak aprobetxatzen ditu gertatutakoa modu eraginkorrean birbideratzeko. Ikastetxeko alderdi (curriculumean, aisialdian, harreman sozialetan...) eta toki guztietan inplikatzeko da ikasleengan balioak eta giza eskubideekiko errespetua garatzeko. Ongizate komuna lortzeko inplikatzeko da. Besteengandik ikasten du eta bere ezagutzak partekatzen ditu. Gainerakoek balioak eta ezagutzak aitortzen ditu. Beharrezkoa den zuhurtziarekin inplikatzeko da beren laneko jarduketan eremuan hezkuntza-komunitateko edozein kideren arazoak edo zailtasunak konpontzeko.</p>	<p>Gai da besteen tokian jartzeko emozionalki inbaditua sentitu gabe. Ikasleek eta familiek adierazten dute entzun egiten diela eta ulertu egiten dituela sentitzen dutela. Gatatzeko, erabakiak hartzea errazten duten prozedurak erabiltzen ditu. Alde bakoitzak besteari ikuspegi edo sentimenduak ulertzea sustatzen du, alde baki asebeteko dituzten erabakiak har ditzaten. Ezusteko egoerak edo hasierako itxaropenekin bat ez datozenak aprobetxatzen ditu gertatutakoa modu sortzailean eta bertatik onura aterata birbideratzeko. Enpatia proaktiboa du eta ondo kudeatzen ditu egoera zailak. Hezkuntza-komunitateak aitortu egiten ditu bere kalitate humanoa, balio etikoak eta balio horiek indartzeko esfortzua. Hezkuntza-komunitateak aitortu egiten ditu bere irakaskuntza-jardunean eta talde-lanean duen eskuzabaltasuna eta ikastetxean eta ikasleen arrakasta pertsonalean, sozialean eta akademikoan duen inplikazioa.</p>

<p>Oro har, ikasleak eta hezkuntza-komunitateko kide guztiak errespetatzen ditu</p> <p>Zailtasunak ditu hezkuntza-komunitateko gainerako kideekin modu eraginkorren komunikatzeko, bereziki ikasleekin.</p> <p>Zailtasunak ditu erabakiak hartzeko.</p> <p>Zailtasunak ditu lankidetzan aritu eta partekatze</p> <p>Zailtasunak ditu aldaketara eta normalean erabiltzen ez dituen estrategietara egokitzeko. Zurruna da bere kontzepzio pedagogikoetan.</p>	<p>Ikasleen eta ikastetxe osoaren ongizateari ematen die lehentasuna erabakiak hartzean. Nabarmena da ikasleen eta ikastetxearen arrakasta bilatzen duela.</p> <p>Gizarte-trebetasunak ditu pertsonen arteko harremanari dagokienez.</p> <p>Modu asertiboan komunikatzen da hezkuntza-komunitateko kideekin, bereziki ikasleekin.</p> <p>Gai da ezusteko egoeretan erabakiak hartu eta erantzuteko.</p> <p>Proposatzen zaizkion aldaketekiko jarrera ona du.</p> <p>Eskatzen zaionean, lankidetzan aritzen da, parte hartzen du eta partekatu egiten ditu partekatu beharrekoak.</p> <p>Akatsak onartzen ditu eta hobekuntza-iturri gisa erabiltzen ditu.</p>	<p>Ikasleen eta ikastetxearen garapen globalaren arrakastan aktiboki parte hartzen du eta inplikatu egiten da, ekarpen eta jarduketa argien bidez.</p> <p>Bere jokabideak argi eta garbi daude ongizate sozial eta naturala lortzeko laguntzera bideratuta, bere jarduketaren eremuan betiere.</p> <p>Komunikazio arina eta eraginkorra du hezkuntza-komunitatearekin eta bereziki ikasleekin, eta balio erantsia ematen duten ekarpenak egiteko erraztasunak ematen ditu.</p> <p>Ezusteko egoeretan, egoera hori emaitza positiboak ateratzeko aprobetxatzea ahalbidetzen duten erantzunak bilatzen ditu. Luze-zabal onartuta dago hartzen dituen erabakiak eraginkorrak direla. Jarrera kritiko eta saiatua du, baina helburu eraikitzaileekin, betiere.</p> <p>Berrikuntza hobekuntzarako gako gisa sustatzen du. Etengabe bilatzen du irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren, ikastetxearen funtzionamenduaren eta hezkuntza-komunitatearen ongizatearen hobekuntza.</p> <p>Lankidetzaren aldeko jarrera du etengabe. Bere ezagutzak, esperientziak eta jardunbide egokiak bere ekimenez partekatzen ditu.</p>	<p>Babesgabezia- edo zaugarritasun-egoerak edo giza eskubideekin eta adingabeak babesteko eskubideekin bat ez datozenak egon daitezkeelako susmoa badu, inplikatu egiten da: orientazioa ematen du, laguntza eskatzen du edo jardun behar duten erakundeei gertatutakoaren berri ematen die.</p> <p>Eskola-komunitateak eta, bereziki, ikasleek, konfiantza osoa dute bere iritzian eta aitortu egiten dituzte ikaskuntzak lortzeko eta ikasleen ongizate emozional, fisiko, pertsonal eta sozialak bermatzeko egiten dituen esfortzuak.</p> <p>Hezkuntza-komunitateak baloratu egiten ditu irakasle horrekiko interakzioak balio erantsia dutelako eta maiz berritzaileak direlako. Komunikazio proaktiboko kanalak sortzen ditu, bai lanerako, bai esperientziak partekatze.</p> <p>Luze-zabal onartuta dago hartzen dituen erabakiak eraginkorrak eta sortzaileak direla.</p> <p>Ospe ona du ikastetxe barruan eta kanpoan lankidetzan aritzen delako eta partekatze eta ongizate komuna lortzeko eta hezkuntza-komunitatea hobetzeko lan egiteko jarrera duelako.</p> <p>Ospe ona du ikasteko, irakasteko eta ikasleen arrakasta lortzeko grina duelako.</p>
--	---	---	--

b) Hezkuntzaren funtzio soziala norberaren gain hartzea

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
Eszeptikoa da hezkuntza-sistemak gizartearen hobekuntzan izan dezakeen eraginari dagokionez.	Aitortzen du hezkuntza funtsezko eskubidea eta hezkuntza-sistema gizartea hobetzeko eta aldatzeko balizko motorra dela, baina uste du lan hori administrazioak egin behar duela eta banakoen edo ikastetxeen ekimenak ez direla eraginkorrak.	Idealismo errealista du hezkuntza-sistemak aldaketa soziala eragiteko motor gisa duen potentzialtasunari dagokionez. Hezkuntzaren alderdi soziala lantzen du.	Ospea du inplikatu egiten delako aldaketa sozialean hezkuntza-sisteman modu egokian jardunda.

c) Hezkuntza-emaizten gaineko erantzukizuna

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
Ulertzen du bere lana ezagutzak transmititzea dela eta ikasleei bakarrik dagokiela ezagutza horiek barneratzea Ez du uste bere irakaskuntza-jardunari buruzko gogoeta egitea beharrezkoa denik, eta ikasleei egozten die beren emaitzen gaineko erantzukizuna.	Uste du bere lanean arrakasta izan duela ikasleek ikasi egiten dutenean. Ikastetxeak eskatzen duenean, irakaskuntza-jarduerari eta barne- eta kanpo-ebaluazioen emaitzei buruzko gogoeta indibidual eta kolektiboan parte hartzen du.	Bere arrakasta profesionala ikasleek lortutako ikaskuntza- eta prestakuntza-helburuen arabera neurtzen du. Halaber, gogoeta indibiduala eta kolektiboa sustatzen du irakaskuntza-jarduerari eta emaitzei buruz, horretarako indarguneak eta hobekuntza-eremuak identifikatuta, bere esku-hartzea eraginkorra izan dadin. Horretarako, <i>diagnostikoa - plangintza - praktikara eramatea - ebaluazioa - doikuntza</i> zikloa erabiltzen du, ikaskuntza-prozesua ikasle guztiek arrakasta izateko behar beste eta etengabe doitzeko.	Ospea du inplikatu egiten delako ikasleen arrakastan, eta aurrerapenak lortzen dituelako. Irakaskuntza-jarduera irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak eta ikasleen emaitzak hobetzeko ekarpen eraginkorra lortzen laguntzen duten estrategiak etengabe bilatzeko prozeduren bidez sistematizatu du. Partekatzen dituen jardunbide egokien eredu da.

d) Etengabeko ebaluazioarekin konprometitzea. Berrikuntza eta esperimentazioa

1. maila: Oinarrizkoa	2. maila: Garatze bidean	3. maila: Garatua	4. maila: Aurreratua
<p>Ez du uste prestakuntzarik behar duenik; bere hasierako prestakuntzari nahikoa deritzo irakaskuntza-lana gauzatzeko.</p> <p>Interes falta du bere praktikari buruz gogoeta egiteari eta irakasleen autoebaluazioetan parte hartzeari dagokionez, baita berrikuntza-jardueretan edo heziketan-programetan parte hartzeari dagokionez ere.</p> <p>Prestakuntzan ez du behar beste parte hartzen edo parte-hartze pasiboa du, eta soil-soilik hala eskatzen duelako ikastetxeko urteko planak.</p> <p>Ez dauka interesik beste profesional batzuegandik jardunbide egokiak ikasteko. Are gehiago, batzuetan errespetu gutxi du estrategia metodologiko ezberdinekiko.</p>	<p>Bere jarduketa irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko une ezberdinetan erabiltzen du eta berau hobetzeko estrategiak baliatzen ditu.</p> <p>Autoebaluazio-prozesuetan parte hartzen du beste irakasle batzuekin.</p> <p>Prestakuntza- eta berrikuntza-jardueretan edo ikastetxeak adostutako programetan parte hartzen du; ez hori bakarrik, horiek garatzen eta gauzatzen ere laguntzen du.</p> <p>Jardunbide egokiak partekatzen ditu eta beste batzuegandik ikasten du.</p> <p>Prestakuntza ikasgelan edo jardun profesionalean aplikatua izatera dago bideratuta, ikasleen emaitzak edo ikastetxearen funtzionamendua hobetzeko helburuarekin betiere.</p> <p>Badaki zer prestakuntza-esparruk ematen dizkion irakaskuntza-kompetentziak hobetzeko tresnak.</p>	<p>Gogoeta sistematikoa egiten du bere irakaskuntza-jardunari buruz: irakaskuntza-ikaskuntza prozesua planifikatzea, ikasgelako esku-hartzea, ikasleen emaitzak eta ebaluazio-estrategiak prestakuntza-ibilbidea planifikatzeko oinarri gisa erabiltzen ditu.</p> <p>Bere praktikaren eta ikasleen emaitzen analititik prestakuntza-bide berriak antolatu eta sustatzen ditu irakaste-kompetentziak eta emaitzak hobetzeko.</p> <p>Taldeko prestakuntzari ematen dio lehentasuna. Etengabe bilatzen du ezagutzak eguneratzea (ikasgaiari, pedagogiari eta metodologiari dagozkionak).</p> <p>Esperimentazio pedagogikoa sustatzen du, betiere ikaskuntzak areagotzeko eta ikasleen motibazioa handitzeko helburuarekin eta gelaren premietara egokituta.</p> <p>Beste hezitzaile batzuekin lankidetzan egindako prestakuntza-jardueretan parte hartzeaz gain, sustatu egiten ditu jarduera horiek, ikastetxeko irakasle guztien irakaste-kompetentziak hobetzeko.</p>	<p>Ikastetxean etengabeko prestakuntza sustatzen du eta bertan parte hartzen du, ikasleen emaitzak eta, oro har, ikastetxearenak hobetzeko.</p> <p>Ekarpenak egiten ditu prestakuntza horren eraginkortasuna ebaluatu eta, horren arabera, erabakiak hartzeko.</p> <p>Bere ezagutzak eta esperientzia arrakastatsuk partekatzen ditu. Besteen ezagutzak baloratzen ditu eta haiengandik ikasten du.</p> <p>Sareetan parte hartzen du. Irakasleen arteko lankidetzak-kanalak sortzeko erraztasunak ematen ditu.</p> <p>Bere estrategia didaktiko-pedagogikoak etengabeko ikaskuntzaren, ikerketa didaktikoaren eta esperimentazio metodologikoaren bitartez egokitu eta eguneratzen du.</p>

e) Norberaren lana kudeatzea eta hobekuntza-erabakiak hartzea

1. maila: Oinarrizkoa

2. maila: Garatze bidean

3. maila: Garatua

4. maila: Aurreratua

<p>Zailtasunak ditu bere eguneroko lan-dinamikan ohikoak diren tentsio-egoerei aurre egin eta egoerok ebazteko.</p> <p>Zailtasunak ditu ezusteko egoeretara egokitzeko.</p> <p>Jokabide desegokia du aldagai guztiak kontrolatzen ez dituen edo ziurgabetasuna sentiarazten dioten egoerei erantzuteko garaian.</p>	<p>Naturaltasunez jorratzen eta kudeatzen ditu ikasgeletan gertatu ohi diren tentsio-egoerak.</p> <p>Onartzen du ez dituela erantzun guztiak ezagutzen.</p> <p>Bere kezkek kideekin partekatzen ditu eta babesa adierazten die kideei beren kezken berri ematen diotenean.</p> <p>Laguntza eskatzen du. Erkatu egiten du.</p> <p>Akatsak onartu eta horietatik ikasten du.</p> <p>Arrazionalizatu egiten du.</p> <p>Lan-kargak epe txiki, ertain eta luzera planifikatzen ditu, lana antolatu eta ordenatzeko estrategia gisa.</p> <p>Aldaketetara egokitzeko eta ziurgabetasuna jasateko gaitasuna du.</p>	<p>Eragin iraunkorreko estrategiak erabiltzen ditu estres-egoerak jorratu eta ebazteko.</p> <p>Arazoen eta egoera zailen garrantzia eta pisua neurtu eta horren arabera hierarkizatzen ditu.</p> <p>Egoerei modu orekatuan heltzen die: inplikatu egiten da, baina ez da emozionalki inbaditua sentitzen, eta, beraz, ez da bere erantzunen kalitatea galtzen eta ez du kalte pertsonal edo profesionalik jasaten.</p> <p>Ezusteko egoeretara egokitzeko gaitasuna du.</p> <p>Gaitasuna du helburu eta xedeetan eraginkortasun-maila mantentzeko beharrezkoak diren doikuntzak egiteko.</p>	<p>Gaitasun handia du estres-egoeren aurrean autoerregulatzeko eta egoerok kontrolatzeko.</p> <p>Tentsio-egoeren kudeaketa onaren eredu da, egoera eraikitzaileagoetara bideratzen baititu. Gauzak horrela, eragindako aldean onarpena, ikaskuntza eta jarrera-aldaketa lortzen du.</p> <p>Kideekin lankidetzan aritzen da autoerregulatzeko eta estresa kontrolatzeko gaitasuna hobetzeko, eta beraiekin partekatzen estrategia arrakastatsuak.</p> <p>Frustrazioarekiko tolerantzia du. Eredu da ezusteko egoeretara egokitu eta modu eraginkorrean erantzuteko.</p>
<p>Bere betebeharrak profesionalak betetzearekiko duen erantzukizuna oso oinarrizkoa eta are eskasa da.</p> <p>Erreparoa ditu ikasgelako eta ikastetxeko lankidetzako proiektuetan parte hartzeko proposatzen zaionean.</p> <p>Pasibotasuna erakusten du eskola-komunitateko harremanak errazteko giroa sortzeko ikastetxean eta ikasgelan duen erantzukizuna bere gain hartzeko.</p>	<p>Erantzukizuna sentitzen du legez ezarritako betebeharrak profesionalak betetzeari dagokionez.</p> <p>Ikastetxeko eta ikasgelako proiektu kolektiboetan parte hartzen du eta bere konpromisoa adierazten du.</p> <p>Eskola-komunitateko harremanetarako giro egokia sortzen laguntzen du.</p>	<p>Inplikaturik dago eta ekarpenak egiten ditu ikaskuntza-prozesuak eta ikastetxearen funtzionamendua modu egokiak antolatzeko eta kudeatzeko eta bi-biak hobetzeko.</p> <p>Inplikazio aktiboa du, lankidetzara arduratsua egiten du, parte hartzen du eta taldean egiten du lan.</p> <p>Aktiboki parte du hartzen ikastetxeko eta ikasgelako proiektu kolektiboetan, eta sustatu egiten ditu. Aktiboki sustatzen du bizikidetzarako eta harremanetarako giro egokia sortzea, ekarpen positiboa egiteko giro horretan eta ikasleek eta beren familien eskubideekiko errespetu eta babesean.</p> <p>Solaskidetzarako jarrera du, eta ikasgelaren eta ikastetxearen kanporako proiektzioa eta kritika eraikitzailea, negoziazioa eta adostasuna sustatzen ditu.</p>	<p>Lagundu, animatu eta erraztasunak ematen ditu irakasle guztiak beren betebeharrak profesionalak modu egokian eta kalitate onez betetzen inplikatu daitezkeen eta betebeharrak profesional horiek ikastetxearen funtzionamendua, bizikidetzara eta ikasleek emaitzak hobetzeko eta ikasleek eskubideak bermatzeko beharrezkoak direla ulertzen.</p> <p>Nabarmena da ikastetxeko proiektu kolektiboek arrakasta bilatzen duela. Ideia sortzaile eta arrakastatsuak ematen ditu.</p> <p>Ospea du bizikidetzara-giroa hobetzen laguntzen duelako eta bere ikastetxeko eta beste ikastetxe batzuetako kideekin partekatzen dituen jardunbide egokiak dituelako.</p>

Ebidentzia-iturriak

- Ikasgelako behaketa: enpatia, gatazkei aurre egiteko jarrera eta kontrol emozionala ditu (distantzia emozionala eta autokontrola mantentzen ditu tentsio-egoeretan, arrazionalizatu egiten ditu egoera horiek...)
- Elkarrizketak familiarekin, ikasleekin, irakasleen taldeekin, zuzendaritzarekin...
- Autoebaluazioa
- Irakasleak irakaslearekin berarekin
- Elkarrizketak irakasleekin
- Elkarrizketak ikasleekin, familiarekin, kideekin, zuzendaritzarekin
- Bilerak zikloko, etapako... irakasleen taldearekin
- Gogobetetze-inkestak irakasleei, ikasleei eta familiei

4. Irakasleak ebaluatzeko ereduaren diseinuari buruzko zenbait alderdi

EAEko Hezkuntza Ikuskaritzak erabaki zuzenean irakasle-profilaren gaiari heltzea, helburu gisa jarri zion bere buruari, besteak beste, irakasle batek ikasleen hezkuntza-premiei behar bezala erantzuteko behar dituen konpetentzia profesionalei buruzko erreferentzia xehe bat edukitzea. Aurrerago, erreferentzia hori konpetentziak hobetzeko prozesu eta tresnen abiapuntu izan daiteke.

Eta prozesu horien artean, funtsezko zeregina betetzen du ebaluazioak. Aintzat hartuta ebaluazioa hezkuntza-ikuskaritzaren funtzioen eta eginbeharren artean dagoela, prestakuntza-ebaluaziorako prozedurak diseinatzea planteatu zen, gure erkidegoko irakasleen irakaste-konpetentzia gero eta kualifikatuagoa eta egokituagoa egon dadin eboluzioaren eta premia sozialen ondoriozko aldaketetara.

Gainera, 2015-17 aldian Europako beste ikuskaritza batzuekin eta beste bi unibertsitaterekin batera egindako ERASMUS KA2_EOSLAPT, ZUZENDARITZA- ETA IKASKUNTZA-FUNTZIOAREN EBALUAZIOA izeneko proiektuak bultzada handia eman zion lan-ildo horri. Ez hori bakarrik, proiektu horretatik ideia eta erronka oso interesgarriak atera ziren.

Orain arte, Hezkuntzako Ikuskaritzak zenbait aurrerapauso egin ditu irakaskuntza-jardunaren ebaluazioaren arloan, besteak beste, praktikaldian dauden funtzionarioak ebaluatuz, irakasleak aukeratzeko hautaketa-prozesuan parte hartuz, zerbitzu-eginkizunetan dauden irakasleak ebaluatuz, irakasle batzuen gaitasuna edo lortu nahi duten lanpostuaren profilarikiko egokitasuna ebaluatzeko balorazio-prozesuetan parte hartuz, laneko arriskuak prebenitzeko zerbitzuarekin lankidetzan arituz eta are jardun profesional desegokia hautematen den kasuetan prozedurak abiaraziz.

Arlo horiek guztiak jorratuta, aukera izan da esperientzia metatzeko, entseguak egiteko eta behaketarako, jarraipenerako, ebaluaziorako eta aholkularitzarako tresnak lantzeko. Alabaina, dokumentu honetako matrize deskribatzailea edukitzea hori baino gehiago da: ezaugarri eta helburu ezberdinak eduki arren, elkarrekiko koherenteak eta osagarriak diren ebaluazio-prozesu ezberdinetan erabiltzeko erreferentzia da.

Matrize horrek gure erkidegoko irakasle-profilaren ereduak deskribatzen du, eta modu exhaustibo eta sakonean aztertzen ditu dimentsio, arlo, konpetentzia eta maila ugari. Helburuaren arabera kontsultatuko da bat edo beste. Bada, langileak hautatzeko prozesu batzuetako lehen faseetan, JAKITE eremua izan daiteke garrantzitsuena. Aldiz, tutoretza- eta orientazio-funtzioa hobetu nahi duen ikastetxe batek helburu horiekin zerikusi handiagoa duten atalak aukeratu ahalko lituzke; bereziki, EGITE dimentsioko G) atalean dauden errubrikak. Laburbilduz, prozesu zehatzak diseinatzeko

erabiliko bada, prozesu horren helburuaren arabera esanguratsuenak diren kompetentziak aukeratu beharko dira.

Bestalde, garrantzitsua da ebaluazio-prozesuetan ebidentziak biltzea. Horrez gain, aintzat hartu behar da dimentsio edo eredu batzuetan elementu objektibo eta egiaztagarriak ematen dizkigutela ebidentzia-iturriek, baina, beste batzuetan, aldiz, zaila izango dela horrelakoak eskuratzea. Gauzak horrela, oso konplexua izan daiteke IZATE dimentsioari dagozkion kompetentziak ebaluatzeko ebidentzia objektiboak biltzea, eta, edonola ere, zeharkako adierazleak erabili beharko dira; kasu askotan, gainera, oso zaila izango da adierazle horiek objektibizatzea. Edonola ere, uste dugu dimentsio hori ezinbestean hartu behar dela aintzat irakasle-profila deskribatzeko, irakaskuntza-jardun eraginkorra egiteko funtsezkoak diren zenbait elementu biltzen dituelako.

Irakasle-profilari buruzko dokumentu hau egin eta gero —dokumentu bizia da, etengabe hobetzeko eta eguneratzeko aukera emango duena aldian aldiko testuingurura eta hezkuntza-sistemaren eskakizunetara egokitzeko—, hauxe da EAEko Hezkuntza Ikuskaritzaren hurrengo erronka: irakasleen prestakuntza-ebaluazioa lantzeko diseinuak egitea, hobetzen laguntzeko bai horretan diharduten pertsoneri bai autoebaluazio-prozesuak abiarazten dituzten ikastetxeei. Horri guztiari esker, hezkuntza-sistema osatzen duten irakasleek beren helburua lortu ahal izango dute; alegia, ikasle bakoitzak ahalik eta gehien garatu ditzala bere prestakuntza eta kompetentziak, zenbait balio oinarritzat hartuta, hala nola bizikidetzaren positiboaren eta balio etikoaren printzipioak, inklusioa, berdintasuna, ezberdintasunetikiko errespetua eta ezberdintasunak ematen duen balio erantsiaren aintzatespena, EAEko hezkuntza-sistema hobetzeko bidean laguntze aldera.

5. Bibliografia eta webgrafia

- Tunning, 2003: Tunning Educational Structures in Europa, Azken Txostena, Lehen Fasea. Julia González, Robert Wagenaar, Deustuko Unibertsitatea
- Texas Teacher Evaluation and Support Sytem. IMPLEMENTATION GUIDEBOOK. TEA (Texas Education Agency) 2015
- The 2013 Framework for Teaching Evaluation Instrument (The Danielson Group, 2013)
<https://www.danielsongroup.org/books-materials/>
- IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA. Comunidad, participación y centro escolar: ámbitos, elementos, agencias y redes © CONSEJERÍA DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES Y SOSTENIBILIDAD. DIRECCIÓN GENERAL DE ORDENACIÓN, INNOVACIÓN Y PROMOCIÓN EDUCATIVA. Kanariar Uharteak, 2013. 978-84-695-6778-4
- EOSLAPT
- EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAN SARTZEN DIREN IRAKASLEEN GIDA.
- GUÍA DE VALORACIÓN PROFESIONAL, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala).

6. Azken oharrak

* Testuan barrena, hainbat termino erabili dira irakasleei erreferentzia egiteko. Besteak beste, aipagarria da gaztelaniazko testuan “docente” hitza erabili dela. Ulertu behar da, hortaz, termino horrek barne hartzen dituela irakasle guztiak, beren generoa edozein izanik ere.

